

## Herririk herri

Movemberrek, minbiziaren kontra bibotea uzteko modak, jarraitzaile ugari ditu Durangaldean > 8



**AZA  
ROAK  
25**



## Huertatarren ametsa errealitate bihurtu da

Enrike Huertak 50 urtean imajinatutako Hontza natura-zientzien museoak Mañarian zabaldu ditu ateak. Familia proiektu bat izan da, erakundeen laguntza barik. Leire Huerta alabak proiektu honen garapenean zerikusi handia izan du. Astelehenean inauguratuko dute museoa. > 3

## Anuntxi Arana antropologoak jasoko du Argizaiola saria > 14

Aste bi baino ez dira gelditzen Durangoko Azokarako. Gerediaga Elkarteak erakundeetako eta Ahotse-neako ordezkariekin batera 49. Durangoko Azokaren aurkezpena egin du, asteon, Plateruena Kafe Antzokian. Nerea Mujika Gerediagako presidentea aurreratu duenez, inoizko sortzaile kopuru handiena hartuko du azokak. Mujikak jakinarazi duenez, Anuntxi Arana antropologoari emango diote Argizaiola saria, eta Okzitania izango da kultura gonbidatua.



## ZALDIBARREN

590 m<sup>2</sup>-ko lursaila duen txaleta

### Solairu nagusia

Egongela zabal, sukaldea, bainugela, logela bat eta logela nagusi bat bainugela eta jantzigelarekin.

### Goiko solairua

Logela 2, bainugela eta estudioa.

### Beheko solairua (txokoa)

Sukaldea, egongela-jangela, garbitokia, bainugela, bi autorentzako garajea eta beiraz hornitutako portxea.

Tel.: 690 816 554

**490.000€**  
negoziagarri

### Mañaria > 4

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren inguruko herri galdeketa egingo dute gaur

### Durango > 2

Martxan da Dendak Bairen 'outlet'-a Saibigain kalean

### Izurtza > 4

Arbizolea industriagunean bidegorria egiten hasiko dira

### Iurreta > 6

Egoiliarren txartela edukitzeagatik 45 euro ordaindu beharko dituzte

## Herririk herri

# Betarraganen 42 plaza dituen aparkalekua egiten hasi dira, asteon

Aparkalekuak ez du txandakako sistema erabiliko

**ZORNOTZA** J. Derteano  
Betarraganen 42 plaza -bi elbarrirentzat- izango dituen aparkalekua egiten hasi dira aste honetan. Konbenio hotelaren eta El Carmelo ikastetxearen artean dagoen udal orubean -1.385 metro karratu ditu- dabiltaza aparkalekua eraikitzen.

Aparkalekua doakoa izango da, eta ez du txandakako sistemarik erabiliko. Beraz, aparkatu ostean ez da denbora mugarik egongo. Urri hasieran Ixerren inauguratu zuten 146 plazako aparkalekua ere doakoa da, baina txandakako sistema darabil,

eta, gehienez, aldiko hiru orduan aparkatu daiteke.

Betarraganeko aparkalekuaren kokapena azpimarratu du David Latxaga alkateak: "Erdigunetik gertu egongo da. El Carmelo ikastetxea eta Zornotza Aretoa gertu daude, eta

El Carmelo ikastetxearen eta Konbenio hotelaren artean dagoen orubean dabiltaza aparkalekua egiten



Hondeatzailea aparkalekua egingo duten orubean lanean.

baita herrigunea ere". Lanak amaitzeko lau hileko epea dago, "baina eguraldia lagun bada, datorren urteko otsail hasierarako prest izatea" espero dute. Sarrera El Carmelo ikastetxearen ingurutik egongo dute. Orubea metro bat inguru altxatuko dute,

sarreragaz parean geratu dadin, nahiz eta barruan, alde batetik bestera, pendiz txiki bat izango duen, %6 ingurukoa. Aparkalekuaren perimetroa eta erdigunea zuhaitzekin eta zuhaixkekin -ereintzekin, urkiekin eta hurrondoekin, adibidez- aton-

duko dituzte. Gainera, argiteria eta uren hustuketarako azpiegiturak ere egongo dituzte.

Aparkalekuak 150.000 euroko aurrekontua du, eta lanak egiteko ardura Asfaltados y Construcciones Morga enpresak izango du.

# Martxan dago Dendak Bairen 'outlet'-a

Durango Shopping 'outlet'-a Saibigain kalean dago

**DURANGO** Markel Onaindia  
Dendak Bai merkatarien elkartek Durango Shopping izeneko *outlet*a jarri du martxan asteon. Horrela, dendarien elkartean dauden saltokietako gaiak egongo dira salgai, soberan geratutakoak edota aurreko denboraldietakoak.

Saibigain kalean dago saltokia, Maristak ikastetxearen ondoan, eta hilaren 29ra arte hiru dendak erabiliko dute: Bilma Boutique, Katy Oinetakoak eta Mancisidor bitxi dendak. Gero, urtean barrena aldizka zabalduko dute, saltokiak txandakatzeko joateko.



Hiru dendetako gaiak daude salgai Durango Shopping saltokian.

# EH Bildu: "EAJren jarrera 'kazikista' eta iluna da"

Aldundiak udal kontuen txostena egiten duenean, bertako arduradunen agerraldia eskatuko du EH Bilduk

**DURANGO** M.O.  
EH Bilduko kideek (Bildu eta Aralar) egonezina helarazi gura izan diete herritarrei. "EAJk daukan jarrera *kazikista* eta iluna" dela uste dutelako: "Beste behin ere, gauzak argitu eta udalaren egoera ekonomikoaren aurrean gardentasun osoz jokatu behar, oposizioari eta herritarrei lepoa emanda jokatu dute".

EH Bilduk 2013ko udal kontu orokorra errekurritu zuen. Izan ere, koalizioak uste du gobernu taldeak ez zuela arauaren barruan egin geldikinaren kalkulua. Erabili bako kredituak eta garatu bako proiektuak aurrezki legez kontatzea kritikatu du, eta azken hiru urteotako inbertsioen balantzea jarri du adibidetzat. Koaliziokoek

diotenez, 2012an %20 bete zen; 2013an %26; eta aurten, irailera arte, aurreikusitakoaren %9,7 bakarrik zegoen eginda. Gainera, 7,9 milioi euroko zorra ezkutatzea egotzi zioten EAJri. Iraileko osoko bilkuran kanpoko txostena egitea erabaki zuten PSE-EEren ekimenez. Koalizioak bakarrik babestu zuen, baina nahikoa zen gehiengoa lortzeko. Gero, urrian, Aitziber Irigoras alkateak Aldundiari txostena egitea eskatu ziola iragarri zuen. Bada, EH Bilduren arabera, EAJk alderdiei kontsultatu barik eta ikuskatu beharreko gaiez iritzia galdetu barik egin du eskaera. "Zeri dio beldurra EAJk?", galdetu dute.

Txostena egiten dutenean, ogasuneko arduradunen agerraldia eskatuko du EH Bilduk.

# Aurrera begirako hausnarketa egongo du EHEk euskaltzaleekin

**DURANGO** M.O.  
Durangoko Euskal Herrian Euskarazek (EHE) solasaldia antolatu du hilaren 28rako, aurrera begirako hausnarketa egiteko. EHEko kide izandakoak eta laguntzaile zein euskaltzale direnak gonbidatu gura ditu. "Horien ekarpenak, neurri batean edo bestean, egun garena izaten lagundu digu", diote eragilekoek. Barikuan, 18:00etan izango da berbaldea, Pinondo Etxean.

35 urte bete ditu aurten EHEk, eta, Durangoko kideen ustez, beharrezkoa da atzera begiratzea aurrera zelan egin erabakitzeko. Orain arte egin dakoa aztertuko dute, eta egin ez dutena ere bai.

Bestalde, gaur *Izan, egin, eragin* dokumentala eskainiko dute Intxaurren, 23:00etan.

### Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko azaroaren 21a,  
12. urtea - 567. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso  
Armendia, Amaia Huarte Basabe,  
Itxaso Altuna Marina.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso  
Esteban Urriaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri  
eta Amaia Ugalde Begoña.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

## Batzar bi, bideen inbentarioa zelan egingo duten azaltzeko

**ATXONDO** Joseba Derteano Udalak herri bideen inbentarioa egingo du. Horrela, bideen zerrenda osatu bat lortzeaz gainera, zehatz jakingo du zeintzuk diren pribatuak eta zeintzuk publikoak. Sendo enpresari esleitu dizkio lanak, 14.000 euroan, eta urtebeteko epea du inbentarioa egiteko.

Prozesua zelan izango den azaltzeko herri batzar bi egingo ditu udalak. Lehenengoa datorren egunean izango da, 19:00etan, Apatako udalbatzar aretoan; bigarrena azaroaren 29ko zapatuan, 10:00etan, Axpeko udaletxe zaharreko eraikinean. Antzinako kartografia, katastroa eta eskriturak erabiliko dituzte, esaterako, informazioa jasotzeko. Dudak baleude, herritarrengana joko dute informazioa batzeko.

## Lehen eskaintza baino 42.000 euro gehiago bidegorria desjabetzeagatik

**ATXONDO** J.D.

Abadiño-Beasain errepideko Atxondoko tartean, udaleko jabetzakoa zen bidegorri zatik (Katalina bihurtzetik aurrera) desjabetzearen gaineko akordioa hil honetan itxi dute udalak eta desjabetzeak egiteko ardura duen enpresak. Azkenean, 54.000 euro jasoko ditu udalak; orain urte bi Aldundiak egindako eskaintza ez zen 12.000 eurora heltzen. Aldundiak zioen bidegorriak erabilera publikoa zuela, baina udalak, ikerketa batzuk egin ondoren, bidegorria udalaren jabetzakoa zela jakin zuen. Desadostasun askoren ostean, desjabetzeak egiteaz arduratzen den enpresa jarri zen hartu-emanetan Atxondoko Udalgaz, eta enpresagaz negoziatu du azken kopurua.

## “Museoa familia proiektu bat izan da; bestela ez litzateke posible izango”

Enrike eta Leire Huertak Hontza museoa inauguratuko dute astelehenean



**MAÑARIA** Jone Guenetxea Heldu da eguna. Enrike Huertak (Durango, 1948) gaztetatik amestu duen natura-zientzien museoa astelehenean, azaroaren 24an, inauguratuko dute Mañarian, ‘Kirikiño’ idazlearena izandako etxean. Erakundeen laguntza barik, familia osoaren inplikazioagaz egin du aurrera proiektuak. Leire Huerta (Durango, 1978) alabak zerikusi handia izan du proiektu honen garapenean.

**Noiz hasi zen hau guztia?**

**Enrike Huerta:** Orain 52 urte inguru hasi nintzen, 14 urte inguru nituela. Museoaren ideia sortu zitzaidan, eta gaur egunera arte ibili naiz.

**Familian zelan bizi izan duzue zaletasun hau?**

**Leire Huerta:** Normaltasun osoz, jaiotzetik ezagutu izan dugulako. Txikitatik oporretan joan gara aitak materiala lortzeko lagun zituen arrantzale batzuen herrira edo museo bat ikusi gura bazuen, inguru hartara. Guk gure oporrak genituen, eta hondartzara joaten ginen, eta, bitartean, berak berea egiteko aprobetxatzen zuen.

**Zenbat ale dituzue une honetan bilduta?**

**E.H.:** 36.100 baino gehiago ditut informatizatuta une honetan. Asko txikiak dira, barraskilo txikiak, esate baterako. Beste batzuk, aldiz, handiagoak dira, sai bat edo lehoi eme bat, adibidez.

**Hainbeste material izanda, museoan ikusgai jartzeko aukeraketa egingo zenuen, ezta?**

**E.H.:** Kutzak zabalitzen joan naizen heinean, aukeratzen joan naiz. Orain lehenengo fasea zabaldu dugu, beheko solairuan, baina bigarren fasea hurrengo solairuan zabalitzen dugunean, besteak ere jartzen joango gara. Berez, obra guztia egiten dugunean, erakusketa goiko solairuan joango da, eta aldi baterakoa behean. Beraz, aldatzen joango gara.

**Ale interesgarriak ikusi ditut museoan. Zein nabarmenduko zenuke zuk?**

**E.H.:** Galdera hau egiten didatenean, zaila izaten da erantzutea. Nire ustez, interesgarriena museoan sartzen den azken alea izaten da. Ale bat lortzen saiatzen bazabiltza eta heltzen bazaizu, horixe da garrantzitsuena. Sa-

rreran dagoen Japoniako karra-marro erraldoiaren atzetik 25 urte eman nituen, eta orain dela gutxi heldu zait.

**Ikerketa lana Enrikerena izan arren, familia proiektu bat da.**

**E.H.:** Nire ideia beti izan da museo hau Durangon zabaltea, baina ez da posible izan, Durangoko Udalak funtzionatu duen moduan funtzionatu duelako. Azkenean, guk geuk egitea izan dugu buruan. Leirek, nire alabak, eta Igor [Notario] suhiak beti izan dute baserri bat erosteko eta bertan landetxe bat egiteko ideia. Etxea handia izanez gero, kortan museo egitea zen asmoa.



Blanesen (Herrialde Katalanak), itsasontzian. [www.hontzamusoa.com](http://www.hontzamusoa.com).

*Kirikiño* idazlearen senitarteko batek etxe hau eskaini zidan, eta aurrera egin genuen. Igorrek egin du obra guztia. Eskulana berea izan da. Hori barik ezingo genuen ezer egin.

**Erakundeetan, Durangoko Udalarenaz aparte, hainbat ate jo dituzu.**

**E.H.:** Bai, Durangon ezin bazen, Durangaldeko beste herriren batean zabaltea zen asmoa. Abadiño, Elorrio eta beste herri batzuekin ere hitz egin izan dut. Lekeition eta Gernikan ere izan nituen eskaintzak, baina urrunegi iruditzen zitzaidan, eta azkenean ez zen ezer irten.

**L.H.:** Mañariko Udalgaz harremanetan gaude. Ikustera etorriko dira, eta udalak jarrera ona du, ofizialki zabaldu arte, laguntzarik lotuta ez dugun arren.

**E.H.:** Laguntza horietan ondo legoke erakunderen batek hezitzaile bat eskaintzea, edo diru-laguntza bat eskaintzea pertsona horri ordaintzeko. Horrela, ikasleak datozenean, azalpenak emateko ardura hartuko luke. Hori oso interesgarria izango litzateke.

**Zein ordutegi izango du museo berriak?**

Momentuz, aste barruan, goiztan itxita egongo da, eta ikaste-teeetako taldeak hartuko ditugu, aurretiaz hitzordua hartuz gero. Arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00etara irekiko dugu. Asteburuetan, berriz, zapatuetan 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

la erdia salduta!

Bixente Kapanaga, 19 behea · IURRETA · Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)

**MARGO LANAK FATXADEN KONPONKETAK ALTURAN EGITEN DEN EDOZEIN LAN**

**aurrerakada**  
lan bertikalak  
**ALDAMIORIK GABE**

contacto@aurrerakada.com  
[www.aurrerakada.com](http://www.aurrerakada.com)  
Tel.: 616 413 660  
Bernagoitia auzoa, 14  
Amorebieta-Etxano

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

## Mañariaren etorkizuna elkarrekin erabakitzeke ordua heldu da

Gaur hasiko da Plan Orokorren inguruko galdeketa; sei eredu daude aukeran



Herritarrek botoa emateko aukera edukiko dute Mañarian.

### MAÑARIA M. Onaindia

Duela urtebete hasi zuten Mañarian Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) berrietzeko prozesua, *Mañaria alkarregaz* izenekoa. Udalaren ekimenez eta herritarren partaidetzagaz, herria hirigintza ikuspegitik zelan eraiki aztertzen ibili dira. Ideia berriekin sei eredu edo alternatiba proposatu dituzte, eta herritarrek esango dute zein nahiago duten. Beraz, Mañariaren etorkizuna elkarrekin erabakitzeke ordua heldu da.

Gerora landuko den plan osoaren lehen fasea da gaurtik aurrera bozkatuko dena. Zerbitzu bakoitzeko kopurua da sei ereduetan aldatzen dena. Adibidez, etxeen kasuan, 90, 107, 118 edo 156 etxe eraikitzearen artean hautatu beharko dute. Ekipamendu eta espazio publikoak ere desberdinak dira. Gainera, oinarri komun bat dago guztietan: izaera publikoko espazioa erreka inguruan hedatuko da, Andra Mari kalea zabalduko da, eta harrobien berreskurapena ere bultzatuko da, besteak beste. Horretarako, ahalik eta lur gutxien erabili gura izan dute, eta herri bizia dute jomuga.

### Seirak puntuatu

Endika Jaio alkateak azaldu du jai giroan hasiko dutela gaur galdeketa, eta musika eta pin-

txoak eskainiko dituzte. Herritarrek sei aukerak puntuatu beharko dituzte, ez bat bakarrik. Gehien gustatzen zaien ereduari sei puntu emango dizkiote, eta puntuazioa beherantz joango da azkenekoari puntu bakarra eman arte. Etxerik etxe banatu duten orriak balioko du botoa emateko.

Udalak abenduko lehenengo astean esango du zein eredu izan den herritarren gustukoena.

### GALDEKETA-EGUTEGIA

- Gaur, azaroak 21: 17:30etik 20:30era, plazan.

- Domekan, hilak 23: 11:30etik 13:30era kultur etxean.

- Hilaren 24tik 28ra: udal etxean, ohiko ordutegian.

## Arbizolean urbanizazio lanak egiten hasiko dira

Udalbatzarrean aho batez onartu dute lanen esleipena

### IZURTZA Joseba Derteano

Izurtzako bidegorri sarea osatzeko beste pauso bat emango du udalak Arbizolea industri-gunean eta bere inguruan deta urbanizazio lanak ere egingo dituzte. Azken udalbatzarrean lanen esleipena onartu zuen aho batez.

Oinezkoentzako zein bizikletentzako bidegorria errekararen aldetik egingo dute, Etxano auzorantz doan zubira heldu arte;

zubitik aurrera Arbere enpresa ingururaino jarraituko du bidegorriak, baina bidearen eskuma aldetik joango da. Inguru horretan, lur-jausi bat gertatu da, eta, gainera, metro batzuetan bidea estutu egiten da. Beraz, alde batetik, eroritako lurra kendu eta gune hori egitura bategaz indartuko dute, etorkizunean berriro horrelakorik gertatu ez dadin. Bestetik, bidea asko estutzen den inguruan, piboteekin banatuko



Arbizolean errekararen aldetik egingo dute bidegorria.

dituzte bidegorria eta errepedea. Horrela, bidegorritik dabiltzan segurtasuna bermatu gura dute. Bere sasoiaren, udalak eta Arbizoleako enpresek akordioa sinatu zuten. Akordio horren

arabera, lurrak udalari utzi zituzten, eta enpresak gastu osoaren kargu egin zen: 104.016 euro. %30 akordioa sinatu ostean jasozuen udalak; gainerakoa lanak amaitu ostean jasoko du.

## Euskararen erabilera sustatzea Amarauneran jomugetako bat

### OTXANDIO J.D.

Euskalgintzan lanean dabiltzan eragileek osatutako Otxandioko Euskaldunon Amaraune taldeak 2015eko plangintza zehaztu zuen joan zen zapatuko batzarrean. Euskararen kaleko erabilera sustatzea izango da lan ildo bat.

Herri bat arnagune da euskara herri batean erabilera arrunteko hizkuntza denean, eta aurten arnaguneen gainean egindako tailerretan azalaratutako ahulguneak landuko dituzte, besteak beste. Esaterako, merkataritzako harremanetan zein kuadrilletan euskararen erabilera sustatzea izango dute helburu.

Gazte asanbladako, Berbalaguneko, Mirugain mendi taldeko, Euskal Herrian Euskarazeko, Soinubileko, Euskara Batzordeko eta eskolako ordezkariak batu ziren batzarrean, eta beste ekimen batzuk ere lotu zituzten. Orain arte legez, Otxandioko berbak jasotzen jarraituko dute, galdu ez daitezten: ehundik gora dituzte jasota. Iaz jaietan egindako herri krosari eta jolas tradizionalen inguruko egunari ere jarraipena emango diote aurten.

### Hitzaldia, gaur

Mario Zapata soziologoak *Mundutik Euskal Herrira, Euskal Herritik Mundura* hitzaldia emango du gaur, 19:30ean, kultur etxean. Kultura aniztasunari etekina atera eta elkarbizitza sustatzeko ekitaldiak antolatuko ditu datozen hila-beteetan Giza Eskubideen Batzordeak.

## Horma-hilobiak ipiniko dituzte hilerrian

2015erako diru aurrekontua onartu du udalak

### GARAI M.O.

2015erako aurrekontua landu eta onartu du udalak, eta hilerrian egingo duten obra izango da nobedadeetako bat. Hain zuzen, horma-hilobiak eraikiko dituzte. Izan ere, orain arte lurpeko hobiak bakarrik egon dira Garain, eta momentu honetan bost hobi bakarrik daude libre. Beraz, etorkizunean sortu ahaliko litzatekeen arazoari aurre hartu gura diote. Hilerriko proiektu horretarako 10.000 euro inbertituko ditu udal administrazioak.

Guztira, 444.000 euroko aurrekontua da landu dutena, eta horietatik 91.000 izango dira inbertsioetarako. Esate baterako, 40.000 euro erabiliko dituzte uraren hornidura sarea berrizteko. Aurten ere hainbat lan

egin dituzte arlo horretan, eta 2015erako diruagaz lanean jarraituko dute.

Hilerriko proiektua bideratzeko 10.000 euro inbertituko ditu udal administrazioak

### Itoginak konpontzeko

Pilotalekuan itoginak sortu direla azaldu dute udal ordezkariak, eta horiek konpontzeko 25.000 euro gorde dituzte aurrekontuan.

Bestalde, herriko auzobideak konpontzeko ere 11.500 euroko partida bat sortu dute hurrengo urteko aurrekonturako.

## 150.000 euro nora bideratu erabakiko dute

Astelehenean eta eguaztenean egingo dituzte foroak

### BERRIZ Amaia Ugalde

Iaz egin zuten antzera, datozen asteetan parte-hartze foroak egingo dituzte Berrizen, 2015erako inbertsioen zati bat nora bideratu erabakitzeke. Bi foro egingo dituzte: lehenengoa herriguneko inbertsioei dagokiena da, eta, bigarrena auzoetako inbertsioei buruzkoa. Herritarrek lehenetasuna zeri eman behar zaion eztabaidatuko dute. 150.000 euroko inbertsio partida izango dute mahai gai-

Astelehenean herriguneko inbertsioak landuko dituzte, eta eguaztenean, berriz, auzuneetakoa

nean; 100.000 euro herriguneko inbertsioetarako, eta 50.000 euro landagunekoetarako.

Lehen foroa, herriguneko, datorren astelehenean izango da, azaroaren 24an. Auzoetako inbertsioen batzarra, eguaztenean, azaroak 26, egingo dute. Berrizko Kultur Etxean egingo dituzte batzar biak, 19:30ean.

Batzarretan aurrekontu parte-hartzaileen metodologia azalduko dute, eta iazko foroetan lehenetsitako eskaeren egokierari buruz informatuko dute. Gero, herritarren inbertsioetarako proposamenak jasoko dituzte.

Iaz egin zituzten lehenengoz inbertsioak erabakitzeke foroak. Iazkoan, 60.000 euroko partida landu zuten, eta 40 herritar inguruk parte hartu zuten batzarretan.

RENAULT  
**TWINGO**  
BERRIA  
MUGITU ZAITEZ  
ASKATASUNEZ



**GAURSA**  
ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA

Twingo Berria gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,2tik 4,3ra bitartean. CO<sub>2</sub> emisioak (g/km) 95etik 99ra bitartean.



## Tasak mantendu ostean, 2015erako aurrekontua diseinatzen hasiko dira

EAJ eta Bildu ez dira ados jarri, bien nahia tasak mantentzea izan arren



Elorriko udalbatzak ez du tasen igoerarik onartu.

**ELORRIO** Markel Onaindia 2015ean aurtengo tasa eta zerga berberak egongo dira. Izan ere, bere horretan mantentzea erabaki zuen udalbatzak, eguaztanean egindako batzarrean.

Alderdi bien nahia zerga ordenantzak berdintzea izan arren, berriro ere EAJren eta Bilduren arteko desadostasunen isla izan zen eztabaida, eta, ondorioz, tasak ez dira adostuak izan.

Hemendik aurrera, tasa horien bidez udalean jasoko den dirua aurrekontuan zelan erabili zehazten hasiko dira.

Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) azaldu zuen tasak eta

zergak mantentzeko arrazoi bi eduki dituztela: KPIaren bilakaera negatiboa eta bi urtez jarraian udal zerga ordenantzen "eguneratze bigunak" egin izana. "Egoera larrian dauden familiei laguntzeko balioko duela uste dugu", esan zuen Mujikak. Gainera, zenbait hobari ere ezarri dituzte langabetuentzat, urritasunen bat daukatentzat, etxeak alokairuan ipintzen dituztenentzat eta ingurumenagaz jasangarriagoak diren autoak dauzkatenentzat.

Idoia Buruagak (Bildu) adierazi zuen euren nahia zerga progresiboak ezartzea zela, baina, adostasuna topatu guran, hobariak proposatu zituztela. Adibidez, etxe hutsak dauzkateni karga fiskala ezarri gura zien Bilduk, gazteei bideratutako alokairua sustatzeko. Ingurumenaz arduratzen diren enpresak eta eraberritu beharreko berreriak ere hobarien hartzaile izango lirarteke. Buruagaren esanetan, alderdien arteko adostasuna topatzen ahalegindu dira. Mujikak ez du iritzi bera, eta Bilduri zehaztasun falta egotzi dio.

Carlos Garciak (PP) ez zuen parte hartu udalbatzarrean, eztei-bidaian dagoelako. Baina gobernu taldeagaz ados dagoela esan du.

**Aurrekontua osatzen** Udalak aurrekontuei begira herritarren iritzia jakin gura du, eta horretarako informazio saioak antolatu ditu. Gainera, aurrekontuaren zirriborroa aurkezteko aprobetxatuko dute. Besteak beste, autokarabanen aparkalekurako 50.000 euro inbertitzea aurreikusi dute, eta Aldapebeitia jauregia zaharberritzerara 325.000 euro bideratzea. Astelehenean, 19:00etan, udal txean batuko dira herritarrekin, eta, eguenean, ordu berean, Iturrin, batez ere elkarteei zuzendutako saioan. Zapatuan, 28an, informazio karpa bat ipiniko dute plazan, 10:00etatik aurrera.

Bestalde, Buruagak kritikatu du elkarlanerako "ezetza" jaso dutela EAJren partetik. Hori dela-eta, *Herri bera beste era batera* izeneko jardunaldiak aprobetxatuko dituzte ideia berriak sortzeko.

## Egoiliarren txartelak, 45 euroko kuota

Eremu laranja ordainpekoa izateak eztabaida piztu du



Aparkaleku batzuk iurretarentzat gordeta daude Bidebarrieta kalean.

**IURRETA** Amaia Ugalde Iurretako udalbatzak 2015erako tasak eta zergak izoztea onartu du asteon. Hala ere, badago nobedade bat: pasa den astean martxan ipinitako aparkaleku

sistema dela-eta, beste tasa bat onartu du; egoiliarren txartela edukitzeagatik, urtean 45 euro ordaindu beharko da.

EAJko, PSE-EEko eta PPko zinegotzien botoekin onartu di-

tuzte zerga ordenantzak; Bilduk kontra egin du, txartela doakoa izan beharko litzatekeela uste duelako. Beste herri batzuetako txartelen prezioekin alderatuta jarri dute prezioa. "Baina Iurretan lana ez da azpikontratatu; udaltzainek euren ordutegiaren barruan egingo dute lan zerbitzu honetarako. Ez dugu aparatuko kosturik ikusten", esan du Bilduko Zorion Agirrezabalek.

Beste alderdiek argudiatu dutenez, zerbitzu eta mantentze-lanek eragindako gastuak egongo dira tartean. Sistema probatzen dabiltzala azaldu du Iñaki Totorikaguena alkateak: "Denborak esango du aldatzea komeni den ala ez". PSE-EEko Marian Muñozek ere antzeko iritzia du: "Diru-sarrera eta gastuen arabera, agian baten bat kontratatu behar dugula konturatu gara". Bilduk alderantziz planteatu du gaia: "Probatu genezake zero euroan, eta denboragaz ikusi ea baten bat kontratatu eta tasa ipini behar den".

## Furgoneta elektriko bat erabiliko du udal brigadak

Inbertsioaren erdia diru-laguntzetatik egingo dute

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Abadiñoako udalak CO2 emisiorik sortzen ez duen eta zaratarik egiten ez duen furgoneta elektriko erosi duela jakinarazi du Abadiñoako gobernu taldeak. Furgonetaren prezioa 20.844 eurokoa dela azaldu du gobernu taldeak, eta inbertsioaren erdia hartu duela udalak bere gain. Inbertsioaren beste erdia diru-

laguntzen bidez finantzatu du: Espainiako Gobernuaren Movele planetik 6.500 euro jaso ditu udalak, eta ia 4.000 euro Energiaren Euskal Erakundetik.

Ibilgailu elektriko berriak ehun kilometroko autonomia dauka, eta Astolako udal pabiloian bateria betetzeko gune bat atonduko duela ere azaldu du gobernu taldeak.



2013ko irabazlea



Bertako okela - Aurretiaz prestatutako janariak





# Durangaldeko berbalagunen VI. Kultur Lehiaketa

**SARIA  
LIBURU SORTA  
EDERRA**

<b>1. 19. Korrikak nor omenduko du?</b>	<b>2. Non eta noiz izango da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala?</b>	<b>3. Durangoko azokak zenbat urte betetzen ditu aurten?</b>	<b>4. Zenbatgarren mintzodromoa antolatu du aurten Berbalagun egitasmoak?</b>
a) Gerediaga elkarte b) Durangoko Azoka c) Durangoko Udala	a) abenduaren 20an, Bilbon b) abenduaren 13an, Bilbon c) abenduaren 14an, Barakaldon	a) 45 b) 50 c) 40	a) Lehenengoa b) Bigarrena c) Hirugarrena
<b>5. Nork egin du Durangoko Azokaren kartela?</b>	<b>6. Nork irabazi du Iparraldeko Bertso Txapelketa?</b>	<b>7. Zein urtetan sortu zen Dantzaroa?</b>	<b>8. Zer da Errigora ekimenaren?</b>
a) Itziar Okarizek b) Marta Cardenasek c) Eñaut Aiertzaguenak	a) Maddalen Arzallusek b) Sustrai Colinak c) Odei Barrosok	a) 2010ean b) 2009an c) 2008an	
<b>9. Korrika 19, nondik nora izango da?</b>	<b>10. Zein herritan ez dago txokolate-fabrikarik?</b>	<b>11. Zein urtetan setiatu zuten Amaiurko gaztelua?</b>	<b>12. Zer esan nahi du Bizkaia hitzak?</b>
a) Baionatik Iruñera b) Donostiatik Gasteizera c) Urepeletik Bilbora	a) Mendaron b) Elantxoben c) Oñatin	a) 1230ean b) 1484an c) 1522an	a) Bi ezkaia b) Bizkarra c) Bizkor eta alaia, laburtuta
<b>13. Nola dauka izena Mikel Laboaren omenez egindako bertsio-diskoak?</b>	<b>14. Zein da Bizkaiko herri txikiena lur-eremua kontuan hartuta?</b>	<b>15. Nork asmatu zuen "ertzain" hitza?</b>	<b>16. Nork idatzi zuen euskarazko lehen liburua?</b>
a) Mikel gogoan b) Lekeitioak c) Txinaurriak	a) Lekeitio b) Portugaleta c) Lanestosa	a) Lauaxetak b) Sabino Aranak c) Indalezio Bizkarrondok, "Bilintx"	a) Gabriel Arestik b) Bernat Etxeparek c) Axularrek

**Izen-abizenak eta telefonoa:**

**Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, abenduaren 5a baino lehen. Saria, e-book bat.**



## BERBALAGUNen PARTE HARTU NAHI DUT!

Bete fitxa hau eta utzi ondoko lekuetan:

- ABADIÑO:** Errota Kultur Etxean.
- ATXONDO:** Udaletxean.
- BERRIZ:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.
- DURANGO:** AEK euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizkuntza Eskolan eta Berbaron.
- ELORRIO:** AEK euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan.
- IURRETA:** Ibarretxe Kultur Etxean.
- IZURTZA:** Udaletxean.
- MAÑARIA:** Udaletxean.
- OTXANDIO:** Udaletxean.
- ZALDIBAR:** Udaletxean.

**639 400 786**

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

[durangaldea@aek.org](mailto:durangaldea@aek.org)

[durangaldeko berbalagunak](#)

Izen-abizenak

Telefonoa(k)


Posta elektronikoa

Zein herritan nahi duzu?

euskalduna naiz eta laguntzeko prest nago  mintzapraktika behar dut

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betetzearen, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak PRAKTIKA JARDUERAK fitxategian sartuta daudela eta horien helburua dela praktika zerbitzuan izena ematen duten pertsonen kudeaketa. Datu horiek administrazio publikoel laga ahal izango zaizkie, golan zehaztutako helburuak betetzeko xedez. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian alortu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.

Fitxategi horien erantzulea EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA(AEK) bera da eta, horri dagokionez, hala nahi izanez gero, aipatutako Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezeztatpen eta aurkartzatza eskubideak bala ditzaitez; horetarako Txakur Kalea 1, 4.a 48.505 Bilbo helbidera edo posta elektronikora eskuera bat bidali behar duzu, NA edo nortasuna egiaztatzeke beste agiri batekin batera.



praktikatu

# Movember: minbiziaren kontra bibotea uzteko moda hazten dabil

Movember Durangaldea taldea sortu dute, mugimendua saretzeko



Hainbat lagunek eskegi dituzte argazkiak sare sozialetan.

**DURANGALDEA** M. Onaindia Finak, sendoak, mexikar estilokoak, gezurretakoak... Askotariko biboteak ikusi ahal dira kaleetan, eta gero eta gehiago, gainera. Izan ere, prostatako eta barrabiletako minbizien kontra sortutako Movember mugimendua hazten dabil Durangaldean. Bibotea uzteko moda honek kutsu solidarioa dauka.

Australian sortu zen mugimendua, errugbi jokalarien ekimenez. Eta errugbi arlokoek

zein beste hainbat kirolarik ere jarraipena eman zieten australiarrei mundu osoan. Iaz Durangaldeko gizon ugari biboteagaz ikusi ahal izan ziren. Aurten, Movember Durangaldea taldea sortu dute, mugimendua saretu, eta ekimenak antolatuzko. Joan zen asteburuan, esaterako, informazio mahaiak ipini zituzten Durangon, eta minbiziaren kontrako dinamikarako 430 euro lortu zituzten. Sare sozialetan orrialde bat zabaldu dute, eta,

ekarpen ekonomikoa egiteaz gainera, argazkiak bidaltzeko gonbidapena egin diete. Gizonek zein emakumeek parte hartu ahal dute, bibote errealekin edo faltzuekin.

## Bibotedunen festa

Bihar, Durangoko Gure Kabiya tabernan bibotedunen festa egingo dute, Moparty deitu dutena. 22:00etatik aurrera zozketak eta argazkiak egingo dituzte bertan.

tzientziazioa topatzeko asmoz. Ondo pasatu dutela eta asko ikasi dutela esan dute, eta, gainera, lagunak ere egingo dituzte.

## Ortuaz berbetan

Orobiogoiatiako Emma Villenak, Ane Unzaluk eta Iker Blancok Lourdes Totorikaguenak lagunduta egin zuten Bartzelonara bidaia. Euskal Herriko nekazaritzaz eta euren institutuko ortu ekologikoz egin zuten berba, besteak beste. Gainera, taillerretan, landare inbaditzaileak kentzen eta mapa jasangarriak diseinatzen jardun zuten, esate baterako.

Ikasleez gainera, irakasleek ere ideiak trukatzeko aprobeztatu zuten, ikastetxeetan etorkizunean garatu ahal diren ekimenak aztertuzko.

# Durangaldeko ikasleak, ingurumenaren zaintzaile

Elorrioko eta Iurretako ikasleak Confinten egon dira

## DURANGALDEA M.O.

Ikastetxe ugari dira ikasleen heziketan ikuspegi ekologikoa barneratzen dutenak. Horieta-ko batzuk IRAES 21 sarean antolatuta daude, eskola iraunkor gisa izendatuta daudelako, eta Confint konferentziara begira ingurumenaren aldeko proiektuak garatzen dituzte. Joan zen asteburuan Espainia mailako konferentzia egin zen Bartzelonan (Katalunia), eta Elorrioko institutuko eta Iurretako Juan Orobiogoiatia ikastetxeko ikasleak egon ziren bertan, Bizkai-

ko, Arabako eta Gipuzkoako ordezkari legez. Beraz, euskal proiektu onenetakoak izan dira ikasle horiek landutakoak.

## Ikasi eta lagunak egiten

Idoia Aiartzaguena, Maider Igartua eta Nahia Aranguren elorriarrak Miren Bego Arbulu irakasleagaz joan ziren Kataluniako hiriburura. Kontatu dute talde dinamika ugari egin zituztela, beti ere naturaren zaintzagaz lotuta. Adibidez, Bartzelonako kaleetan grafiti bat egin zuten, jendearen kon-

# Neguko San Andres jaiak abiatzeko, arku tiro txapelketa

## ZALDIBAR I.E.

Arku-tiroko neguko San Andres saria jokatu dute domekan. Ekitaldi horrek, eta gaurko argazki lehiaketak emango diete neguko San Andres jaiak hasiera. Arku-tiro txapelketaren XVII. edizioa da kiroldegian jokatu dute hori. Arku taldeak antolaturiko hitzordua da domekakoa, eta 09:00etatik 13:30era arte jardungo dira lehian tiralarriak, San Andres saria nor irabaziko.

## Antzerkia, gaur

Oihulari Klown taldearen eskuetik, *Zai, beti zai* antzezalana izango da, bestalde, gaur, liburutegi zaharrea ikusgai. Udalak antolatu du emanaldia, eta 22:00etan hasiko da. Virginia Imazek zuzenduriko ikuskizuna da, eta berak egindakoa da gidoia. Anduriña Zurutuza eta Maider Galarza dira aktoreak.

# 2015erako zerga eta tasak izoztea erabaki du Mallabiko Udalak

## MALLABIA M.O.

Mallabiko Udalak joan zen azaroaren 12an egindako udalbatzarrean 2015erako aurreikusitako zerga eta tasak izoztea erabaki zuten. Bilduk eta EAJk aho batez hartu zuten erabakia.

Bilduren udal gobernua bere horretan uztea proposatu zuen Ogasun Batzordean, eta proiektua aurrera irten zen. 2014ko zerga ordenantzetan %2ko igoe-ora orokorra aplikatu zuten. "KPIa zero azpitik dabilenez, gastuei aurre egiteko nahikoa dela deritzogu. Krisiaren ondorioz herritarrek ere ez daude momenturik onenean", esan du Mila Mondragon alkateak.

## SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



## Herritarrok mugitzen hasi dira

Durangok hirurogei milioi euro baino gehiagoko "inbertsioak" egin zituen 2007-2011 artean. Orain zer? Ia ezer ere ez. Batzuentzat "pagotxa" zen adreilutik zetorren diru erraza bukatu delako eta inbertsioak egiteko zegoen gaitasunak lurra jo delako. Landako II, liburutegia, Lariz dorrea, Tabirako tribuna, Ezkurdi plaza, Kurutzesantu Museoa eta Hizkuntza Eskola daude tartean. Aipatutako obra horietan 44 milioi euro gastatu ziren (hamabi milioi euro gaitasunetik dagokie). Obra guzti horiek eginda daude, baina durangarron beharrianak ez dituzte bete, eta herritarren protestek arrazoi ematen digute.

Zer eskaintza egiten zaie gure herriko gazteei? Ezer ere ez. Horregatik, gazteak espazio bat aldarrikatzen hasi dira, udalak alde batera utzita dituela ikusirik.

Zer eskaintza egiten zaie gure herriko umeei? Ez daukate gune estalirik, eta kontuan hartuz gero bizi garen herrian zenbat euri egiten duen, beharrezkoa litzateke hori. Gurasoak mugitzen hasi dira, bustiko ez diren toki bat aldarrikatzen.

Txakurren jabeak ere mugitu eta mobilizatu ziren, eta erdibideko soluzio bat bilatu dute. Dena ez da inbertsio handiak eginez konpontzen eta.

Herritarrek ez dituzte azpiegitura erraldoiak eskatzen. Zoritxarrez ez zaie beraien ahotza entzuteko aukerarik eman. Azken urteetan egindako obrak merkeago eta beste ikuspuntu batez egin izan balira, egun ez ginatke blokeo eta ezintasun baten aurrean egongo, eta herritarren beharriari erantzuna emango genioke. Goazen herritarrekin lan egitera.

**Txomintxo eta Perutxo losuri fardela aldatzen**

AURKEZPENA  
Txomin eta Peru Magdalena  
Azaroak 28,  
barikua 18:30etan

**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85



**Yong Jie Hu (Durango, 1999) | Mila Soledad Mbo (Durango, 2004)**

Yong Jie Hu eta Mila Soledad Mbo gazteek lau urte daramatzate Berbaroren saioetan.

## ‘Askotan gertatzen zait euskaraz dakitenak gaztelaniaz entzutea’

Euskara indartzeko Berbaroren saioetan dihardute gazte biek

**> EUSKARA** Joseba Derteano Durangoko Udaleko Immigratio Sailaren ekimenez, Berbaro euskara elkarteak euskara indartzeko saioak eskaintzen dizkie gazte etorkinei. Yong Jie Hu eta Mila Soledad Mbo gazteek lau urte daramatzate eskola horietara joaten. Pozik dabilzala diote, eta eskolak oso baliagarri zaizkiela.

Biekin euskaraz izandako solasaldian, euskaragaz duten hartu-emanari buruz jardun dute, eta gogoetarako aukera uzten duten anekdotak kontatu dituzte. Yong Jie Huren gurasoak

txinatarrak dira, 9 urte gaz etorri zen Euskal Herrira, eta Fray Juan de Zumarraga institutuan ikasten du. Mila Soledad Mbo-  
ren gurasoak Ekuatore Gineakoak dira, 4 urte zituela etorri zen handik hona, eta Kurutzia-  
ga ikastolako ikaslea da.

Pentsatzen dutena euskaraz nahiko ondo adierazteko kapaz dira, baina Milak gehiago ikasi gura du: “Gauza batzuk adieraztea kosta egiten zait oraindik, eta hemen asko laguntzen didate”. Yong Jiek ere bere euskara maila hobetzeko darabilza Berbaroko eskolak. “Baina, horregaz

batera, lagun piloa ezagutu dut; ondo pasatu, eta asko ikasten dugu”. Aditzak eta berba jakin batzuk batzuetan mihi puntan geratzen zaizkiola onartu du Milak, baina euskara ikasteko prozesutik zailena egiten zaiona besteek diotena ulertzea da: “Aditzak ondo erabiltzea kosta egiten zait, baina hobetzen nabil; hitz egitea baino, euskara ulertzea da gaitzen egiten zaidana”.

**‘Agur’ euskarazko berba da?** Yong Jiek, Euskal Herrira etorri zenean, ez zekien euskara existitzen zenik: “Gaztelaniaz baka-

rrik egiten zela uste nuen”. Horregatik,

kalean *agur* esaten ziotenean, gaztelaniazko beste berba bat zela uste zuen, harik eta lagun batek euskaraz agurtzen zutela jakinarazi zion arte: “Orduan izan nuen lehenengoz euskararen berri”. Harrezkero euskara ikasi gura du. Gurasoek ez zioten trabarik jarri, baina euskarak Euskal Herrirako bakarrik balioko ziola gogoratzen zioten: “Berdin zitzaidan, nik euskara ahalik ondoen ikasi gura nuen”.

Euskara ondo dakitenean, baina ondoren kalean erabiltzen ez dutenen errealitatea gertutik ezagutzen dute biek: “Askotan gertatzen zait euskaraz dakitenak gaztelaniaz entzutea. Batzuek esaten didate alferra ematen diela euskaraz berba egiteak”, dio Yong Jiek. Milak ere egoera berberak bizi dituela dio, eta ikastolako gelan irakurtzen duen esaldia gogoratu du: “Euskara ez da galduko ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baino. Ez dugu euskaraz egiten egin beharko genukeen beste”.

Bi gazte hauek erabiltzen dute euskara, eta etorkin gazteak euskaraz entzuteak harridura sortzen duela onartu dute: “Kalean lagunekin euskaraz nabiltenean, batzuetan jendea niri begira geratzen da, harrituta, eta euren kolkorako pentsatzen dute: ‘euskaraz ari da!’”, dio Milak. “Niri ere batzuetan harrituraz begiratzen didate”, gehitu du Yong Jiek.

**EUSKARAK  
365  
EGUN**

**> DURANGALDEA ASTEON**

### ‘Zure mugikorrek ezkututzen duena’

**DURANGALDEA >** Durangaldeko 15 ikastetxeek eta Amankomunazgoak abiatutako kanpaina da *Zure mugikorrek ezkututzen duena*. Erabiltzen ez diren mugikorrek udaletxeetan uzteko gonbita luzatu dute ikasleek. Mugikorrek saldu edo birziklatu ostean lorturiko dirua Kongon hainbat proiektu garatzera bideratuko dute.

### Gure Esku Dago, etorkizunari begira

**ELORRIO >** *Eta orain zer?* lelopean, batzarrera deitu dute Elorrioren. Erabakitze eskubidearen aldeko Gure Esku Dago ekimenagaz bat egin duten elorriarrek sorturiko taldeak deitu du batzarrera. Azaroaren 27rako egin dute deialdia antolatzaileek, eta 19:00etan jarri dute hitzordua, Elorrioko Arriola antzokian.

### Ramon Aldasoro preso Murtziara

**OTXANDIO >** Ramon Aldasoro preso otxandiarra Castelloko kartzelatik (Euskal Herritik 560 km-ra) Murtziakora (780 km-ra) tokialdatu zuten orain hilabete. Beraz, Euskal Herritik 220 kilometro urrunago dago orain. Aldasoro 1997an atxilotu zuten Miamin (AEB). Harrezkero, zortzi kartzelatan izan da.

**Iritzia**

### Merkatu plazako baserriarren kezka

Idatzi honegaz larunbatero Durangoko plazara hurbiltzen garen nekazariok zera adierazi nahi dugu: Durangoko Merkatu plazaren egoera nahiko kezagarria da. Gaur egun (adibidez, aurreko larunbatean) 30 postu inguru gabiltza zapaturo hemen. Horietatik erdia gabiltza gure eta sasoiaren sasoiko produktuekin bakarrik (birsalmenta egin gabe). Hamabost-hamasei hauetatik bederatzihamar gaude nekazaritzan ogibidez, autonomo bezala, Gizarte Segurantzaren ordaintzen, zergak ordaintzen, Nekazaritza eta Osasun sailerako kontrolak pairatzen, irabaziak aitortzen, Mercabilbaoren kompetentzia desleialaren kontra borrokatzen eta abar. Azkeneko urteetan, ordea, gazte asko ari da hurbiltzen nekazaritzara, eta Durangoko plaza leku aproposa eta naturala izan beharko litzake Durangaldeko nekazari berri horiek erakartzeko. Arazoa da dagoen giroak, kompetentzia desleialak, salmenta eskasiak eta utzikeriak ez dutela nekazari berri askorik erakartzen, eta erakartzen baditu, gutxi batzuek baino ez dute lekuri aurkitzen eta lehendik gaudenok ez gara jenero gehiago ekartzera ausartzen, erdia etxera eramatearen beldurrez. Horren adibide da Atxondoko nekazari gazte

batek plazara etortzeari utzi diola, eta esplotazioa kanpoan duten, baina izatez Durangaldekoak diren beste nekazari gazte bik ezingo dutela etorri, udalak plazan lekuri ez dagoela esan dielako.

Urteak dira egoera hau salatzen ari garela, eta 2012. urtean Durangoko Udalak araudi bat atera zuen zapatuetako baserriarren merkatuaren arazoari aurre egiteko asmoz. Bi urte beranduego, araudi hori ez du oraindik inork betearazi, eta egoera txarrera doa.

Egoera hau askotan salatu dugunez, eta udala eta Dendak Bai jakitun direnez, elkarte honek eta Amankomunazgoak hartutako erabakia prentsan irakurtzeak harritu egin gaitu.

Hau guztia jakinda, baserriarren merkatuarentzat irtenbiderik aproposena eta Durangaldeko lehen sektoreari laguntzeko era eraginkorrena 2012. urtean udalak adosturiko araudia betearaztea dela uste dugu. Horretarako, ondo legoke Dendak Bai elkarteak eta Durangaldeko Amankomunazgoak jarri behar dituzten 15.000 euroak araudi hori betearazten dela ziurtatzen gastatzea, eta ez kutsu elektoralak darion kartoi harrizko baserri birtual folkloriko bat plazan jartzea.



**astekaria@anboto.org**  
asteartea 17:00ak arteko epea

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## **Berbaz**

**Jabi Zabala** | Ventana al Valle proiektuaren elkartasun taldeko kidea | Gorliz, 1971

# “*Jendea Ventana al Valle proiektua bisitatzera joatea da gure helburua*”

Viñaleseko (Kuba) proiektu komunitarioa ezagutarazteko jaialdia antolatuko dute Abadiñon, azaroaren 29an



Jabi Zabala eskuinean, Kubara egindako bidaia batean.

**> BERBAZ** **Jone Guenetxea**  
Kubako Ventana al Valle proiektua indartzeko jaialdia antolatuko du asteburuan Euskadi-Cuba elkarteak Abadiño-ko gaztetxearen laguntzagaz. Abadiño kultura kubatarraren erakusleho bihurtzeaz gainera, herrialde horren inguruko mahai inguru eta dokumental emanaldiak aurreikusi dituzte. Jabi Zabala proiektuan buru-belarri murgilduta dago.

### Zertan datza Ventana al Valle proiektua?

Proiektu komunitario bat da. Inguru horretan eta Habanan proiektu komunitarioak sortzen dabilta. Hau da, lagun talde bat biltzen da komunitatearen alde zer edo zer egiteko gogoagaz, modu guztiz altruistan. Horieta asko prozesu kulturalak izaten dira. Hau da, balio kultural bartzuk babesteko eta sustatzeko.

### Viñales zelako herria da?

Herri nekazari bat da. Mendi bitxi batzuek inguratuta dagoen bailara batean dago. Mendi oso ikusgarriak direnez, Unescok gizateriaren ondare kultural izendatu ditu. Paisaia oso politak daude, eta azken urteotan paisaiaturismoa garatu da. Turismoagaz batera, lehen ez zeuden ezberdintasunak ere garatu dira. Turismoaren inguruan bizi den jendea dibisetatik hurbilago

dago, eta nekazariak, berriz, pobreagoak dira, ez dutelako turismoagaz loturarik. Beraz, kezka sozioekonomiko hori badago. Era berean, kezka kulturala ere badago. Turismoagaz dena eraldatu da, eta bisitarietara eskaintza estandarago bat eskaintzen hasi dira bertako balioak baztertuta. Horiek dira, hain zuzen, turista mota bati interesatzen zaizkionak. Beraz, balio horiek berreskuratzeko eta aintzatesteko sortu da proiektua.

### Euskal Herritik hainbat lagunek proiektuagaz bat egin duzue.

Gu proiektuan laguntzen gabiltza, baina beraiek dira protagonistak. Jendeak proiektua bisitatzera da gure asmoa. Beraien helburuak eta bertan ekoizten dituzten kultur adierazpenak ezagutaraztea: son, kreole dantzak, repentismoa, ahozko literatura... Ekintza kulturalak egiten dituzte. Ehun lagunetik gora dituen dantza talde bat sortu dute, esaterako. Zortzi monitore dituzte, eta leku askotara jotzen dute. Era berean, antzezetarako leku bat dute, eta aldagelak eta antzoki antzeko bat ditu, adibidez.

### Ostatu bat ere baduzue.

Bai, ostatu antzeko bat jarri dugu martxan. Hortik ateratzen den diruagaz proiektua finantzatzen da. Proiektuan denek dihardute musu-truk, baina beste gastu

batzuetarako baliabideak behar dira. Gela bakar bat dago, baina pare bat gela prestatzea da asmoa. Ez da ostatu tipiko bat. Leku bizi bat da. Espero dugun jendea da hori ezagutzera eta parte hartzera datorrena. Ez da izango isiltasun osoa egongo den lekua. Kulturagune bizi bat da hau.

### Kultur trukerako espazioa da, beraz.

Turista jasotzaile pasiboa izan beharrean, ekarpen bat egitera doan turista espero dugu. Dagoeneko, txalapartariak eta bertolariak joan dira. Orain dela gutxi Bermeoko dantza talde handi bat joan zen. Eta Valentziako dantza talde bat ere joatekoa da.

### Zein lotura daukazu Kubagaz?

Lotura pertsonala daukat. Proiektuan dihardutenak ezagutzen ditut. Lagun egin ginen aspaldi, eta proiektua martxan jarri zenetik laguntzen gabiltza; bai ni, bai Euskal Herriko lantalde bat: tartean Iker eta Ane abadiñarrak. Euskal Herriko sustatzaile nagusienetakoak Amparo Loizaga eta bere bikote-kidea dira.

### Zergatik erabaki duzue jaialdia Abadiñon egitea?

Iker eta Ane Abadiñoak dira, proiektuan inplikatu dira, han egon dira, eta ezagutu egin dute. Jaialdia egitea proposatu zigu-

ten, eta egitaraua edukiz osatzen hasi ginen. Azkenean nahiko programazio txukuna atera da. Gaztetxean ez bagara sartzen, probalekura joango gara.

### Azaroaren 28an ‘El maestro saharai’ dokumentala eman-go duzue. Zertan datza?

Dokumental honek Kubara ikastera joandako saharaiuen fenomeno azaltzen du. 1982an 10 urte gaz Kubara joan zen saharai bat ezagutzen dut. Kubak hainbat herrialderekiko izan duen jarrera laguntzailea azaltzen du. Sahararena kasu bat da, baina beste hainbat daude: Nikarua, Honduras, Namibia, Angola eta hainbeste lekugaz izandako jarrera nabarmendu gura dugu. Une honetan Sierra Leonan eta Liberian ehun mediku eta erizain kubatar daude ebolaren aurka kolaboratzen.

### Azaroaren 29rako egun osoko egitaraua prestatu duzue.

Mahai inguru antolatuko dugu Kubaren egoera sozioekonomikoari buruz berba egiteko. Hainbat gonbidatuk parte hartuko dute, tartean Euskadi-Cuba elkarteak kideak eta Ventana al Valle taldeko kideak. Ondoren, herri bazkarian batuko gara.

### Ventana al Valle proiektua aurkeztuko duzue.

Proiektuaren aurkezpen formal bat izango da. Bideoak eta argazkiak emango ditugu, proiektua azaltzeko. Ondoren, Bi Dak abeslari kubatarrak etorriko dira, Danieuris eta Daniellis Moya ahizpak. Kubako abestiz eta euskarazko kantez osatutako sorta eskainiko dute.

### Bilboko talde kubatar batek ere erakustaldia eskainiko du.

Bai, Yoruba dantzen erakustaldia izango da, Orisha Ewe taldeagaz. Ausartzen direnentzat dantza kubatarren ikastaro bat emango dute. DJ bat egongo da 19:30etik aurrera, eta Kubako musikaren aukeraketa egingo du.

“*Viñaleseko balio kultural eta sozialak aintzatesteko sortu da proiektua*”

“*Jasotzaile pasiboa beharrean, ekarpen bat egitera datorren turista espero dugu*”



# “Kanpainaren erdian, behar dugun bazkide berrien kopuruaren laurdena lortu dugu”

Abenduaren 31ra arte egin daiteke Plateruenerako diru ekarpen eta borondatezko lan kanpainagaz bat



**> AGERRALDIA** Itsaso Esteban Plateruena Kafe Antzokia diruz laguntzeko irailan abiatu zuten kanpainaren erdira ailegatuta, orain arteko emaitza jakinarazteko, agerraldia egin zuten martitzenean Jone Miren Goenaga Plateruenerako presidentea eta Nerea Iriarte zuzendaritza batzordeko kideak. “Kanpainaren erdira heldu gara, hilabete eta erdi da kanpaina abiatu gendua, eta behar dugunaren laurdena lortu dugu; ez da gutxi, baina ez da nahikoa”, azpimarratu zuen Nerea Iriartek prentsurrekoan. Azaldu zuten, Plateruena bost urtean diruz laguntzeko konpromisoa 200 lagunek hartu dute dagoeneko.

Lehendabizi, bazkide berri horiei eskerrak eman zizkion martitzeneko agerraldian, eta, bigarrenik, oraindik ekarpena egin ez dutenei gonbita luzatu zieten: “Orain da ekarpena egiteko garaia”, esan zuen Jone Miren Goenagak. Izan ere, abenduaren 31ra arte dago ekarpen kanpainaren parte hartzeko aukera. Prentsurrekoan

azaldu zuten kanpaina abiatu zuten unean izan zutela erantzunik onena, eta, Durangoko jaietako geldialdia tarteko, behar dena sumatu dutela azken asteetan. Durangoko Azokako eguneko kanpainaren goraldia

ekartzea espero dute. Gainera, asteon hasi dute telefono bidez Durangaldean ekarpen kanpainaren inguruko informazioa emateko lana.

Ikasturte hasieran diru ekarpen eta borondatezko lan kan-

paina abiatu zutenean azaldu zuten bezala, duela hamar urte eraikina berritzeko eskaturiko kredituaren 250.000 euroko zorrari aurre egin behar dio Plateruenerako datozen bost urteetan. Bazkide berrien sostenguagaz, datozen bost urteetan urtero 50.000 euro eskuratzea da helburua. Plateruena zabaltzeko egingo dako 1.500.000 euroko inbertsioa da zorraren jatorria. Hori kenduz gero, Plateruenerako kultur gintza eta ostalaritza proiektua ekonomikoki bideragarria dela adierazi zuten. Iriarteren arabera, “urtero bankuei ordaindu beharreko zorrak baldintzatzen du gure proiektua”.

Duela hamarkada bat Plateruena zabaldu zenean bizi ez genuen krisi ekonomikoa bizi dugu azken urteotan, eta horrek ere asko aldatu ditu gure aisialdi eta kultur kontsumo ohiturak. Horri loturiko hausnarketa prozesua egin du azken urtean

Plateruena Kafe Antzokiak *Zilarberritzen* izeneko prozesua. “Sumatzen dira, dagoeneko, prozesu horrek ekarritako aldaketak Platerueneran, bai lan egiteko moduetan, bai eraikinean bertan”, azaldu zuen Iriartek.

## Abenduaren 6ko jaiak

Oraindik egitarau zehatza aurreratzerik ez duten arren, martitzeneko prentsurrekoan azaldu zuten abenduaren 6ko gauerako jai berezia antolatzen dabilela Plateruena. Igor Elortzak, Peru Magdalenak eta Eneko Sagardoyk dihardute emandako prestakuntza, eta, euskal kultur gintzako hainbat lagunek parte hartuko dute ekitaldian: musikariek, idazleek, antzezleek, eta dantzariak, esaterako.

Diziplina askotako ikuskitza izango da, “euskal kultur gintzaren *bizimin* eta bizipozei buruzkoa”. Eneko Sagardoy Durangoko aktorea izango da ikuskitzaren “harilkatzailea”, eta hamabost bat gonbidatugaz osatuko dute ordu eta erdi inguruko emandako. Goenagaren berbetan, “jai itzela antolatzen dabilta, eta Durangaldeko eta Euskal Herriko kulturazale guztiei egin gura diegu abenduaren 6an geuzag jai egitera”.

## Zuzeneko diskoaren salmentaren irabazia, Plateruenera, Katamalok

Diskoaren salmentatik ateratako dirua Plateruenera bideratuko du taldeak

Durangoko Platerueneran eskaini zuen Katamalo taldeak orain arteko bere azken kontzertua, 2011. urteko azaroan. Kontzertu hura “zentzu guztietan oso-oso berezia izan zen”, ekarri du gogora Gotzon Barandiaran taldekideak: “Mila lagunetik gora elkartu ginen Platerueneran, eta berotasun itzela jaso genuen entzuleengandik. Han bizi izan genuena ez dugu erraz ahaztuko; hasieratik gugaz kantatu zuen jendeak,

hartu-eman itzela izan zen, eta oso hunkituta egon ginen emandako hainbat unetan ere”.

“Plateruenerako diru ekarpen kanpaina abian jarri duela jakin genuenean erabaki genuen gure ekarpen xumea izan daitekeela kontzertu hartako grabazioa eurei eskaintzea, eta horren salmentatik ateratako dirua Plateruena laguntzera bideratzea: urte guztietan bidelagun izan dugunari laguntzeko”, azaldu du Barandiaranek.

Zuzeneko diskoan Katamalo taldearen azken kontzertuko emandako dago jasota, egun hartako kolaborazio bereziak barne. Gainera, Katamalo taldearen aurreko diskoetan ez dauden beste kanta batzuk ere bildu dituzte bertan. “Sonoritate berezia dute disko hemezortzi kantek”, dio Barandiaranek, “beste dimentsio bat hartu zuten kontzertu hartan”.

Katamalo musika taldearen oinarrian dagoen Larrabetzu-

ko Bihotz Bakartien Klubak Durangoko Plateruenera hamaik urteko harremana duela azpimarratu du idazleak: “Katamalo taldeko batzuk Literatura Eskolako kide ere bagara, eta Plateruenerako Zilar Asteetan, esaterako, hasieratik parte hartu izan dugu. Gainera, Plateruena beti egon da inplikaturaren gure proiektuetan, eta bertan beharrean dabilen jendearen lagun ere bagara”, azpimarratu zuen Katamalo taldeko kideak.

Zortzi euroan dago zuzeneko disko eskuragai. Platerueneran, ANBOTOn bulegoan, edo euskarazko tokiko hedabideen bitartez erosi daiteke diskoa, eta, horren bitartez, Plateruena Kafe Antzokiari lagunduko diote erosleek.

**Katamalok Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!**

Platerueneraren alde **Katamalok** egindako lana, 8 €-an eskuragai ANBOTOn eta Plateruena Kafe Antzokian



**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Durangoko San Agustín kultur-gunean eskainiko dute Eneko Sagardoy Durangoko aktoreak eta Maskarada taldekoek *Arkimedesen printzipioa* antzezlan, azaroaren 23an. “Harrotasun eta lasaitasun handiagaz” ariko dela dio Sagardoyk: “Asko zor diot San Agustini, eta obra lagunaren eta etxearen aurrean erakusteko ilusioz nago”.

Josep Maria Miro i Colominaren testuan oinarriturik dago *Arkimedesen printzipioa* antzezlan naturalista. Norbanakoaren askatasunaren eta gizartearen arauen arteko talkaren ingurukoa da. Obraren hasieran aita bat agertzen da esanez Facebookean irakurri duela igerilekuko begiraleak mutiko bati muxu eman diola ahoan.

Iñaki begiralearen papera antzeztzen du Sagardoyk. Pertsona oso interesgarria dela dio: “Jatorra, oso naturala, mutil sano eta maitakorra da”. Sare sozialen eraginari buruz, beldurrez, egiaz eta gezurraz dihardu obrak. “Zer gertatzen da salatua den pertsonagaz?”, galdetu du

## Askatasunaren eta arauen talkari buruz, ‘Arkimedesen printzipioa’

Azaroaren 23an, Durangoko San Agustinen eskainiko dute antzezlan



Iñaki protagonistaren papera antzeztzen du Eneko Sagardoy durangarrak.

Sagardoyk. Antzezlanekoa “gai latza, deserosoa eta polemikoa da”. Obra amaitzean, batzuen ustez, erruduna da Iñaki, pederasta. Beste batzuen ustez, aldiz,

pertsona ona da. Obra bera ikusi dute denek, baina iritzi guztiz kontrajarriak dauzkate.

Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zuten obra, eta aza-

roan Azpeitiko Euskal Antzerkiaren Topaketetan ere izan ziren. Gaiarekiko interesa piztu dute emanaldi guztiek, eta ikusleek gogoeta ere bai.

### GEURE DURANGALDEA

**JOSUNE ARANGUREN**

Kultur teknikaria



### Jakintzaz

Jakintzari buruzko gogoeta bat oraingoan, asteko gertakizun bik iradokia.

Bata, alabaren bizitzako filosofiako lehen azterketa: jakintza lortzeko bideak –arrazionaltasuna eta sentiberatasuna–. Bestea, lanean antolatatu dugun arte garaikideko gazteen artelanez osatutako erakusketa eta bertara lehenengo bisita egin zuten laurogei urtetik gorako pertsonen balorazioak.

Taxista izandako nagusi batek, ez zela bera gelan sartuko, berari kotxeak gustatzen zaizkiolako, lan sasoiaren pintore izan denari koadroak gustatzen zaizkion bezala. Beste andre batek, irudiko landareak ez direla hemengoak eta ea zein leku ote den hori, hain landare bitxiak dituen, Tenerife edo... Horrelakoak anekdota hutsetik haratagoko iruzkinek lagunduta: “Ez dut aditzen, gazteen kontuak, badakizu, zer adierazi nahi du horrek?”, eta antzekoak, eskultura gehienak begiratu ere egin gabe, koadroetara ohituago edo, antza. Galderak egiten zituzten eta interesa eta jakin-mina erakutsi zituzten.

Esperientzia interesgarria izan zen, lehenbizikoz bizi izandakoa zelako eta gainontzekoetan 30-60 urte bitartekoekin ohituta geundelako. Adin horretakook beste era batera erreazionatzen dugu ezezagunaren aurrean, harrokeriaz, mespretxuz, ukazioz... Beldurrez, finean?

Alabari esango diot filosofia irakasleari galdetzeko ea zein bide egin duten nagusiek hain jakintsu izateko.

[www.josunearanguren.blogspot.com.es](http://www.josunearanguren.blogspot.com.es)

## Bertsolari txapelketako lehenengo finalaurrekoa

Etxebarrian jokatu dute finalaurrekoa, bihar

### > BERTSOLARITZA

Bihar, 17:30etik aurrera jokatu dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalaurrekoa. Lea-Artibaiko Etxebarriko pilotalekuan izango da saioa. Finalaurrekoan kantatuko dute Durangaldeko bertsolari bik: Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak eta Miren Amuriza berriztarrak. Bi horiekin saioko seikotea osatuko dute Ander Elortegik, Fredi Paia, Iratxe Ibarra eta Joseba Artzak.

2012. urteko txapelketan finalista izateagatik, zuzenean sailkatu dira finalaurrekoetarako Paia, Ibarra eta Amuriza. Beraz, zapatuan hasiko da hiru bertsolari horientzat 2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.

*Abarkas*, aldiz, Mungiako kanporaketa saioa irabazita sailkatu da finalaurrekoetarako, eta kanporaketan batutako puntuazioari esker lortu dute finalaurrekoetarako pasea Elortegik eta Artzak.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren aurtengo bost kanporaketa saioetan entzule kopurua “gora eta gora” joan dela azpimarratu du Bertsozale Elkartek, eta giroa ere saioz saio joan dela berotzen. Talde antolatzaileak azpimarratu duenez, Mallabiko saioan batu da bertsozale gehien: lauhundik gora. Orain artekoak ikusita, finalaurrekoetan zein abenduaren 20ko finalean ere gorakada espero dute antolazailleek.

## Euskal kanten emanaldia hartuko du Plateruenak

Azaroaren 23an, 18:30ean izango da kantaldia

### > MUSIKA

Ermuko, Zaldibarko, Durangoko, Markinako, Barakaldoko, Balmasedako, Abadiñoko eta Atxondoko haur eta gazte kantarien emanaldia izango da, domekan, 18:30etik aurrera, Durangoko Plateruena antzokian. Bakarka, taldeka zein musikariek lagunduta kantatuko dute emanaldi horietan.

Durangaldeko hainbat partaidek kantatuko dute Platerueneko hitzordu horretan: pianoaren laguntzagaz ariko da, batetik, Xaramel taldea, eta soinuagaz Abadiñoko eta Atxondoko kantariak osaturiko Anbotoko Sorgiñak taldea. Gainera, Amaiur Azkarate durangarrak bakarrik eta *a capella*

kantatuko du, eta Ainhoa eta Paule Azpitarte zaldibartarrek ere parte hartuko dute Euskal Kantuzaleen Elkartek antolatutako emanaldian.

Bakarka, taldeka zein musikariek lagunduta kantatuko dute Durangoko emanaldian

Durangaldeko hainbat herritako kantariak parte hartuko dute, adibidez, domekako kantaldian

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Almazuela-Maindirepean**  
Roberto G. Alonso Konpalnia  
Azaroaren 22an - 12:00etan/18:00etan

**Arkimedesen printzipioa**  
Maskarada antzerki taldea  
Azaroaren 23an - 19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA**  
Durangoko Kafe Antzokia  
[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)

<b>AZAROAK 22</b> 22:30ean 8€/12€ 	<b>AZAROAK 23</b> 18:30ean DOAN 	<b>AZAROAK 26</b> 20:00etan DOAN 	<b>EGUNEKO MENUA</b> ASTELEHENETIK LARUNBATARA
<b>CHERRY BOOP &amp; THE SOUND MAKERS</b> MUSIKA KONTZERTUA	<b>EUSKAL KANTAK</b> KANTALDIA	<b>KANTUAREN KANTOIA: SIROKA</b> BERBALDI MUSIKATUA	

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300



# AZA ROAK 25

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO  
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango



# ‘Macho Maris’: matxismoari aurre egiten dieten gizonei eskainitako antzezlanana

Ermuko Zipriztintzen gizon taldekoek hausnarketarako eskaintza egingo dute antzezlanagaz



‘Macho Maris’ antzezlaneko aktoreak.

**> ELORRIO M.O.**  
*Macho Maris* antzezlanana Elorriora helduko da azaroaren 25ean, gizonen artean hausnarketa eta gogoeta sustatzeko asmoz. Lan hori Ermuko Zipriztintzen gizon taldeak sustatu du, eta berdintasunaren alde egiten

duten lanean kokatzen da. Hain zuzen ere, hutsune bat ikusten zutelako erabaki zuten antzezlanana egitea. “Jarrera matxistak modu zuzenagoan, errazagoan eta dibertigarriagoan kritikatze beharra sentitu genuen”, diote Zipriztintzen taldekoek.

Gaztelaniaz erabiltzen den *Marimacho* terminoari buelta eman gura izan diote *Macho Maris* lanaren sortzaileek. 50 minutuan mikromatxismoak, gizonen pribilegioak, hizkuntzaren erabilera sexista, ardura banaketa eta beste hainbat gai

lantzen dituzte. Antzezlaneko aktore biek, *Markusek* eta *Juanmanolok*, “umoretik eta autokritikatik” jorratuko dituzte gai horiek, esketx formatuan eskainita.

**“Umoretik eta autokritikatik” hainbat gai jorratuko dituzte esketx formatuan**

## Emakumeekin batera

Zipriztintzen taldekoek adierazi dutenez, Ermuko emakume asanbladagaz harreman oso estua daukate, eta antzezlanaren edukiak eurekin partekatu dituzte gidoia idazteko prozesuan.

Azaroaren 25erako Arriola kultur aretoan ipini dute hitzordua, 20:00etatik aurrera. Gainera, Abadiñora ere hurreratu dira eskaintza ausart honeguz. Hilaren 30ean izango da biga-

rren emanaldi hori, 19:00etan, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

## Posterra ipintzera

Baina *Macho Maris* antzezlanana ez da izango Elorriok eskainiko duen gauza bakarra azaroaren 25era begira antolatutako eguneko ekitaldietan. Egunean bertan, 19:00etan, Herriko plazan batzeko deialdia egin dute, elkarretaratze isila egiteko bertan.

Horretaz gainera, herritarren inplikazioa topatu guran, etxeko balkoietan puntu moredun posterrak ipintzea eskatu dute. Poster horiek etxerik etxe banatu dituzte aurretiaz, buzoietan utzita, eta bakoitzak berea bere etxean eskegitzeko gonbita egin dute.

Bestalde, azaroaren 26an protokoloari buruz egingo dute berba, Iturri kultur etxean, 19:00etan hasiko den hitzaldian.

**Inplikazioa topatu guran, etxeko balkoietan puntu moredun posterrak ipintzea eskatu dute**

## ELORRIOKO UDALA *Azaroak 25*

Elorrioko Udalak Herritarrei dei egiten die parte hartzera:

### Azaroak 25, martitzena

ETXEKO LEIHOETAN puntu moredun posterra ipintzea.

19:00etan, Elorrioko herriko plazan. ELKARRETARATZE ISILEAN parte hartzeko deialdia.

20:00etan, Arriolan antzerkia. MACHO MARIS antzezlanana.

### Azaroak 26, eguaztena

19:00etan, Iturri. Genero indarkeriaren aurkako protokoloari buruzko hitzaldia.

## NIK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI EZ, ETA ZUK?

Azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistaren kontrako zure jarrera adieraz ezazu.

### Jarri puntu morearen kartela zure etxeko leihoan.

Ikur honekin, gizarte guztiarena den jarrera komun bat agerian jarri nahi dugu, indarkeria sexistaren adierazgarria den jarrera eta jokabide ororen aurka. Publiko egin ezazu emakumeen kontrako indarkeria baztertu egiten duzula.

## Nik indarkeria sexistari ez, eta zuk?



Elorrioko udala



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



# Durangalde mailako Beldur Barik topaketa egingo dute azaroaren 27an

Beldur bako jarrerei buruzko lehiaketa da Beldur Barik; eskualde mailako topaketa antolatu dute Durango, Abadiño, Berriz eta Iurretako Berdintasun sailek; herri horietakoen lanak ikusi eta sari banaketa egingo dute



Iurretako eta Durangoko kideen bideo banaren fotogramak.

**> DURANGALDEA** A. Ugalde Durangoko San Agustin kultur-gunean jaialdi berezia egingo dute datorren egunean, azaroak 27. Iluntzeko 19:00etan hasita, Durango, Abadiño, Berriz eta Iurretako zortzi taldek Beldur Barik jarrera lehiaketara aurkeztutako bideoak ikusi, eta sari banaketa egingo dute.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bosgarren bider antolatu dute aurreko Beldur Barik lehiaketa, eta, lehiaketa orokorraz gainera, aukera egoten da eskualde mailako topaketak eta sariketak egiteko. Durangaldeko Berdintasun sail batzuek, elkarlanean, eskualde mailako lehiaketa egitea erabaki dute: "Asmoa urtero antolatzea da", azaldu du Berrizko Berdintasun teknikari Hodei Arrizabalagak.

#### Bideoen edukiak

Adibidez, kirol arloko aukera berdintasuna, familia ereduaren aniztasuna eta bikote harremanetako kontrolak landu dituzte

**San Agustin kultur-gunean izango da jaialdia, datorren egunean, iluntzeko 19:00etan**

**Durangoko, Abadiñoko, Berrizko eta Iurretako zortzi talderen bideoak ikusiko dituzte**

Durangaldeko gazteek euren bideoetan. Izan ere, lehiaketaren helburua desparekotasun egoerak eta kultura matxista agerian uztea da.

#### Sariak

San Agustingo jaialdia KARRIKA antzerki taldeak dinamizatuko du, eta, aurkeztutako bideoak ikusi eta gero, sariak banatuko dituzte lehiaketako bi kategoriatan. 12 eta 17 urte artekoen kategorian, eta 18 eta 26 urte artekoena egon dira: kategorian sari nagusia eta aipamen berezia egingo dira.

Beldur Barik topaketa orokorra datorren azaroaren 29an izango da, Urola Garaian (Gipuzkoa). 16:00 aldera hasiko dira ekitaldiak Zumarragan. Tailerak egingo dituzte bertan: hilekoa bizitzeko moduei buruzko tailerra, autodefentsa tailerra, desiraren laborategia eta rap feminista tailerra. Iluntzean Urretxura joango dira kalejiran. Bertan izango da sari banaketa, 20:30ean hasita.

Informazio gehiagorako eta aurkeztu diren bideoak ikusteko:

[www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)

## Salaketarako eta hausnarketarako deia

Hamar minutuko isiluneagaz hasiko dute ekimena

**> ZALDIBAR** Markel Onaindia Genero indarkeriaren kontrako ibilbidea egingo dute Zaldibarren, azaroaren 25ean. Lehendakari Agirre kaleko parke zaharrean geratuko dira 18:30ean, eta hamar minutuko isiluneagaz hasiko dute ekimena. Izan ere, salaketaz gainera, hausnarketa egiteko deia egin du Olaia Araucua Berdintasun zinegotziak: "Norberak haus-

nartzeko ere izango da, horrelako gauzak zergatik pasatu ahal diren pentsatzeko". Zelan ez, indarkeria jasan duten emakumeak ere gogoan izango dituzte. Isilunea amaitu ostean, udaletxeraino oinez joango dira. Han Helmuga emakume taldearen eta udalaren idatziak irakurriko dituzte, eta, amaitzeko, bideo bat eskainiko dute.

**Genero indarkeriaren kontrako ibilbidea egingo dute Zaldibarren**



laz egindako mobilizazioan hartutako irudi bat.

**AZAROAK 25,  
EMAKUMEEN  
KONTRAKO  
INDARKERIAREN  
AURKAKO EGUNA**

**Azaroak 21, barikua**

22:00

ZAI BETI ZAI antzezlanaren liburutegi zaharrean. *Euskaraz.*

**Azaroak 25, martitena**

18:30

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ibilbidea, Lehendakari Agirre parkean hasi eta udaletxeraino.

Manifestua udaletxean.



Ayuntamiento de Zaldibar  
**ZALDIBAR**  
Euzko Legebiltzaria



**Irantzu Varela** | Faktoria Lila talde feministako kidea

## “Autonomia, errepestua eta ongizatea izan behar dira maitasunaren oinarri”

Irantzu Varela kazetari feministak Abadiñon eskainiko du ‘Maitasunaren ipuina’ tailerra, bihar



> **ABADIÑO** Itsaso Esteban  
Nori dago zuzendua ikastaroa? Parte hartzen duen jendea da, zelanbait, hori zehazten duena. Horrelako tailer batean izena ematen duzunean, badago zerbait zure barruan: ez zaude guztiz gustura emakume bezala eman dizuten papera betetzen, edo irakatsi dizuten mundu ikuskeragaz. Jakin-mina daukanari eta maitatzeko bere era eraiki gura duenari dago zuzendua.

**Zelakoa izaten da saioa?**  
Uste dugu gure bizitza esperientziatik ikasten dugula gizakiok gehien, eta, horregatik, hainbat materialen laguntzagaz, esperientzia indibidualak hartzen ditugu oinarri talde dinamiken bitartez. Balio handikoa da, gure ustez, norbanakoaren esperientzia. Helburua da jakin-mina piztea, eta hainbat aurreiritzi mahaigaineratzea. Tailerra amaitzean jendea landutakoan sakontzeko gogoz joan dadin.

**Zelako materialak erabiltzen dituzue tailerretan?**  
Saiatzen gara denetariko gauzak erabiltzen: testu oso sakonak daude, baina baita gai haue-

### AZAROAK 25

**MAITASUNAREN IPUINA  
TAILERRA**

Formatzailea:  
Irantzu Varela  
(Faktoria Lila)  
10:00 – 13:30  
Txanporta

### AZAROAK 29

**BELDUR BARIK  
TOPAKETA  
AUTOBUSA**

[www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)  
webgunean erreserbatu.  
16:00  
Urretxu-Zumarraga

### AZAROAK 25

**EMAKUMEEN KONTRAKO  
INDARKERIAREN  
AURKAKO EGUNA**

Elkarretaratzea  
18:00  
Trañabarren kalea

### AZAROAK 29

**MACHO MARIS  
ANTZERKIA**  
Ziprztintzen Ermuko  
gizon taldea  
Antzerkia  
19:00  
Errota kultur etxea  
Sarrera: 2€

### AZAROAK 27


**DURANGALDEA  
BELDUR BARIK  
JARRERA 2014  
LEHIAKETA**

Sari banaketa teatralizatua  
Karrika antzerki taldea  
19:00  
San Agustin kurgunea



ABADIÑOKO  
UDALA

ABADIÑO - AZAROAK 25



**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ**



tara lehenengoz hurreratzen direnentzat prestatuak ere. Dokumentalak, filmak, tesiak, entseguak eta abar ipintzen ditugu partaideen eskura. Tailerrean parte hartzeko, dena dela, ez da behar ezelako jakintzarik, jakin-mina da behar den bakarra.

#### Maitasunaren idealizazioak zelako kaltea eragiten digu?

Gure ideia nagusia da maitasunak, norbaitekiko konexio, ulertze eta erakarment bezala ulertzen badugu, ongizatea eman behar digula beti. Sozializazioan, baina, maitasuna ulertzeko beste modu bat jaso dugu: sufrimendu handia eragiten diguna. Maitasun erromantikoaren eraikuntza soziokultural hori sistema honetan emakumeok sufritzen dugun gutxiespenagaz nahasten badugu, hauxe da emaitza: munduan erailak diren hamar emakumetik lau euren gizonezko bikotekideek edo bikotekide ohiek erailak dira.

#### Beraz, indarkeria matxistagaz harremana dauka maitasuna ulertzeko modu horrek?

Bai. Maitasuna desberdintasuna eta indarkeria nagusi den espazio bilakatu du gizarte patriarkalak. Guk, aldiz, maitasu-

nak ongizatea eta lasaitasuna eman behar dizkigula uste dugu. Horregatik saiatzen gara alboratzen sufriaraztera eta mina eragitera garamatzaten elementuak; jeloskortasuna, bestea kontrolatu gura izatea, dependentzia emozionala... Ideia okerra da pentsatzea norbait maitatzeak bere askatasuna mugatzea esan gura duela.

#### Zertan oinarritu beharko genuke maitatzeko beste era hori?

Autonomia, ongizatea eta errespetua izan beharko lirakeke beti maitasunaren oinarriak. Emakumeoi irakatsi digute maitasuna dela gure bizitzako proiektu nagusia, eta besteen onespeneren bila gabiltza beti. Emakumea besteen grinak asebetetzeko dagoela irakatsi digute. Gizonek, aldiz, euren beharrianak eurek asebetetzen dituzte. Edozeren ginetik dagoen maitasunaren ideiak errazten du harreman toxikoak sortzea, eta giro horretan oso zaila da harreman autonomoak eta askatasunean oinarriturikoak edukitzea.

#### Kazetaria zara. Komunikabideek zelan eragiten dute?

Sistema kultural eta sozialak erreproduzitu egiten ditu maita-

“*Maitatzeko bere era eraiki gura duenari eta jakin-mina duenari dago zuzendua tailerra*”

“*Ideia okerra da norbait maitatzeak bere askatasuna mugatzea esan gura duela pentsatzea*”

sunari buruzko ideia toxiko guzti horiek. Egia da, baina, gutxinaka lortzen ari garela komunikabideek islatzea badaudela maitatzeko beste era batzuk; ez direnak heterosexualak, monogamoak, bizi guztirakoak, edota seme-alabak edukitzean oinarriturikoak. Hedabideetatik egin ezin dena da indarkeria, desberdintasuna eta askatasun eza legitimatzen duen

maitasunaren ideologia zabaldu. Aipaturiko maitatzeko beste era horiek mahaigaineratzen lagun dezakete komunikabideek, horiek normalizatzen.

**Noiztik diharduzue 'Maitasunaren ipuina' tailerra eskaintzen?** Urte asko daramatzagu, eta emakume eta gizon askok parte hartu dute maitasuna ulertzeko eta bizitzeko beste era baten bila antolatutako tailerrotan. Faktoria Lilan emakumeok XXI. mendean eta Euskal Herrian bizi dugun desparekotasunaz gogoetan genbiltzala, maitasuna askotan ateratzen zen. Ohartu ginen maitasunaren gaia ikuspegi feminista batetik lantzeko beharra genuela. Konturatu ginen, maitasunaren izenean, bestela onarterzinak iruditzen zaizkigun gauzak onartzen ditugula.

#### Zelako emaitzak izan dituzue orain arteko tailerretan?

Nik uste jendeak maitasunari buruzko ideia propioagoa eskuratzen duela tailerretan: bakoitzak zorientasunari buruz daukan ideari lotuagoa. Tailerretan parte hartzen dutenek, nik uste, hainbat ideia garbi eramaten dituzte: maitasunaren izenean berriro egin gura ez dituztenak edo

aldatu gura dituzten jarrerrei loturikoak, esaterako. Tailerren ondorio nagusia da maitatzea dela bestea zaintzea eta errespetatzea, eta zaindu eta errespetatzea zaitzela eskatzea.

#### Hezkuntzatik eragitea da gaikoetako bat. Zelan ikusten dituzu gazteak?

Benetan garrantzitsua deritzot gazteengan eragiteari. Izan ere, maitasunaren gaian ere, esperientziak asko erakusten digu: helduak esperientziatik ikasten du ongizate gehiago ematen dioten harremanak bilatzen. Gazteak, baina, oso ahulak dira komunikabideek eta kulturak bidaltzen dizkien mezuekiko. Negargarria da txarrera goazela ikustea. Maitasun harreman bat zer den ikusteko, *A tres metros sobre el cielo* edo *Mujeres, hombres y viceversa* dira erreferenteak: harreman heterosexuala, edertasun kanon jakin bat jarraitzen duena... Datuak oso larriak dira: indarkeria sufritu duten 18 urteko beherakoen kopurua ikaragarria da, eta kontrol estrategiak maitasunaren parte direla pentsatzen dutenena ere bai. Askok dugu egiteko askatasunean eta errespetuan oinarrituriko maitasun harremanak lortzeko.

## Gazteak egitarauaren protagonista Berrizen

Jaialdia, tailerrak eta kontzertuak izango dituzte



Endemaño taldeak eta Humusek kontzertua eskainiko dute zapatuan. Emarock.

**> BERRIZ** Amaia Ugalde Gazteen artean sentsibilizazioa lantzeko hainbat ekitaldi egongo dira datorren astean, Berrizen. Martitzenean bertan, ikasleek jaialdia egingo dute; institututik eskola aurrera kalejira joan eta gero egingo dute indarkeria sexistaren kontrako jaialdia.

Gazteleku-kideek ere hainbat tailer egingo dituzte barikuan, sentsibilizazioa lantzeko.

Zapatuan kultura emankizun txanda izango da. Kultur Etxean *Hitzak* antzezlan eskainiko dute, 20:00etan: berbazko indarkeria ardatz duen antzezlan.

Zapatuan gaua amaitzeko, berriz, gaztetxean Endemaño eta Humus taldeen kontzertuak egongo dira. Feminismoaren arloan egiten duten lanketatik aukeratu dituzte talde horiek gazte asanbladak.

**Zapatuan, berbazko indarkeria ardatz duen 'Hitzak' obra eskainiko dute 20:00etan**

## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA AZAROAK 25



#### · AZAROAK 25

**15:15 Institutua**

Kalejira institututik eskola aurrera. Bertan dantzak, aldarrikapena...

#### **19:00 Urtiaga plazan**

ELKARRETARATZEA

Emakumeen kontrako indarkeriarik ez! Adierazpen instituzionalaren irakurketa.

#### · AZAROAK 27

**19:00 San Agustin**

**kulturgunea - Durango**

DURANGALDEA BELDUR

BARIK JARRERA 2014

LEHIKETAREN SARI

BANAKETA / TOPAKETA

#### · AZAROAK 28

**17:00 Urtiaga plazan**

Gazteei zuzendutako hainbat ekintza.

#### · AZAROAK 29

**16:00 - 22:15 Urola - Garaia**

EAE BELDUR BARIK

JARRERA 2014 LEHIKETAREN

SARI BANAKETA / TOPAKETA

Autobusak doan. Informazioa:

*Berdintasun Zerbitzua*

#### **20:00 Kultur Etxean**

HITZAK antzezlan.

Sarrera 8€ / Euskaraz / Iraupena: 75'.

Sarrerak salgai liburutegian:

azaroak 24, 25 eta 26an.

#### **22:30 Berrizko**

**Hiltegixe gaztetxean**

HUMUS + ENDEMAÑO kontzertua.

Doan.



Puntu morea, herriko gune hauetan eskuragarri: udaletxean, Kultur Etxean eta ikastetxeetan.

Har ezazu puntu more bat eta jarri zure etxeko edo saltokiko leihoan.

**Lagundu Berriz puntu morez betetzen!**

# EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA



**PENTSATU,  
EZTABAIDATU ETA  
EKIN, BELDUR BARIK  
JARRERAREKIN!**

## ERAKUSKETA

'Vidas silenciadas' - ONG Bateginez

Tokia: Andragunea (Pinondo plaza, 1)

Noiz: Azaroaren 24tik abenduaren 12ra arte

Aurkezpen-bisita gidatua: azaroak 24, 19:30

## AZAROAK 25 ASTEARTEA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren

Aurkako Nazioarteko Eguna

## ELKARRETARATZEA

Tokia: Udaletxeko Plaza

Ordua: 13:00

## MANIFESTAZIOA

Durango Udalak Durango Plataforma

Feministak antolatutako manifestazioan

parte hartera animatzen zaitu.

Tokia: Andra Mari

Ordua: 19:00

## AZAROAK 27 OSTEGUNA

BELDUR BARIK JARRERA 2014

LEHIAKETAREN SARI

BANAKETA / TOPAKETA

Karrika Antzerki Taldea

Tokia: San Agustin kulturunea

Ordua: 19:00

## AZAROAK 28 OSTIRALA

ANTZERKIA

'SEX O NO SEX' Oihulari Klown

Klown ikuskizuna, heldu eta gazteentzat

Tokia: San Agustin kulturunea

Ordua: 20:30

Sarrera: 6€ (4,5€ bazkideak)

## ABENDUAK 3 ASTEAZKENA

IKERKETAREN AURKEZPENA

'Las mujeres palestinas y el movimiento asociativo:

evolución y actualidad'

Mar Gijón Mendiagutia BILADI

Tokia: Pinondo Etxea 3. pisuan

Ordua: 19:00

## ABENDUAK 10 ASTEAZKENA

HITZALDIA

'Emakumeei laguntzeko sareak'.

Suspergintza Taldea

Tokia: Andragunea (Pinondo Etxea)

Ordua: 18:30

Andreak, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako elkarteak antolatzen du.



## Palestinako emakumeen antolaketa berbagai abenduaren 3ko hitzaldian

Mar Gijón arabista eta irakasleak eskainiko du hitzaldia Pinondo Etxean



Mar Gijón (zutik eta eskuman) Inash al Usra elkarteke presidente, presidenteorde eta boluntarioekin, Ramalan.

**> DURANGO** Joseba Derteano XIX. mendearen amaieratik gaur egunera Palestinak izan duen ibilbidean emakumeak parte-hartze zuzenik gabeko ikusle soil izan diren usteagaz apurto gura du Mar Gijonek, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle eta arabistak. Bilboko Biladi elkartearen bidez eta Eusko Jaurlaritzaren finantziarioak lagunduta, *Las mujeres Palestinas y el movimiento asociativo* ikerketa garatu du, eta ikerketa horretan jasotako ardatz hartuta, hitzaldia eskainiko du abenduaren 3an, 19:00etan, Durangoko Pinondo Etxeko hirugarren solairuan.

Palestinaren azken mendeko datarik garrantzitsuenak gatazkari lotuta daude: XIX. mendearen amaiera eta britainia-

rren kolonizazioaren aurkako mugimendua; 1948an Israelgo Estatuaren sorrera; 1967an Sei Eguneko Gerra; 1987an lehen intifada... Jazoera horietan gizarte antolatu bat altxatu zela dio Gijonek, eta tartean emakumeek beti parte-hartze handia izan zutela: "XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran britainiarren okupazioaren eta kolonizazio sionistaren kontrako mugimendua sortu zen, eta emakumeak horren parte izan ziren". Oro har, horrela gertatu da gainerako data garrantzitsuetan ere: "Manifestazioetan parte hartu dute, egunkarietan memorandumak eta salaketak idatzi dituzte, britainiar politikoekin batzartu izan dira, erresistentzia armatuan parte hartu dute..."

**Gaur eguneko eragozpenak** Gaur eguneko egoera ez da aproposa emakumeen berdintasunaren aldeko bidean: "Okupazioaren kontrako borroka hartzen du lehenetsuna, eta horrek markatzen du eguneroko jarduna". Gainerako kontuak bigarren mailan geratzen direla dio.

Legedian dagoen nahasmenak ere ez du askorik laguntzen Gijonen ustez. Zisjordania eta Gazako gizarte zibilaren legedia Egipto eta Jordaniako legediari dator, 1967ra arte herrialde bi horien zelako Gazaren eta Zisjordaniaren tutoretza. Gainera, lege horiek beste batzuekin bateratu behar dira. Beraz, berdintasunaren inguruko legedia bateratu bat falta dela dio, eta hori aplikatzeko testuinguru apropos bat.

## Isildutako bizitzak islatuz erakusketa Pinondon

Pochutako emakumeen egoera erakutsiko dute

**> DURANGO** J.D.

Guatemalako Pochuta herriko emakumeek bizi dituzten indarkeria moten gaineko ikerketa egin du Durangoko Bateginez gobernu kanpoko erakundeak. Han bizi eta ikusitakoak hitzez ez ezik, irudietan ere erakutsi gura dituzte. Horrela, azaroaren 24tik abenduaren 12ra *Vidas silenciadas* izeneko erakusketa egongo da ikusgai Pinondoko Andragunean.

Datorren astelehenean, 19:30ean, erakusketaren aurkezpena egingo dute, eta baita bertako argazkietatik bisita gidatua ere, bertaratzen denari Pochutako egoerari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzeko.

Durangon beste hainbat ekimen daude Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Azaroaren 25ean, 13:00etan, elkarretaratzea egingo dute udal etxe pareko plazan; 19:00etan manifestazioa hasiko dute Andra Maritik.

Azaroaren 28an, 20:30ean, *Sex o no sex* ikuskizuna eskainiko du Oihulari Klown taldeak San Agustin Kulturgunean. Sexuaren gaineko gorabeherak umoreagaz landuko ditu.

Abenduaren 10ean Suspergintza Taldeak emakumeei laguntzeko sareak izango ditu berbagai. Andreak elkarteak antolatutako hitzaldia 18:30ean hasiko da, Andragunean.

## Ondarroako topaketen aurkezpena, Durangon

Bilgune feministen topaketa Ondarroan izango da

**> DURANGO** J.D.

Euskal Herriko Bilgune Feministak Emakume Abertzaleen VI. Topaketa antolatuko du abenduaren 13an, Ondarroan. Topaketa horren aurkezpena Durangoko Ibaizabal ikastolan izango da, bihar, 12:00etan.

*Jostorrazak dantzan ditugu; Euskal Herriaren burujabetza feministarantz* da topaketaren leloa, eta aurten hiru ardatz nagusi izango ditu: egungo krisi ekonomikoan patriarkatuaren eraginaren inguruko identifikazioa egitea, Euskal

Herriko burujabetza feminista aztertzea, eta sare feminista indartzea eta kohesionatzea. Egitarau osoa webgune honetan irakurri daiteke: [www.2014-topaketafeministak.net](http://www.2014-topaketafeministak.net).

**Sare feminista  
kohesionatzea  
eta indartzea  
dira topaketaren  
ardatzetako bi**

## Indarkeriarik ez



**> ANDEREA**

Andreak plataforma indarkeria sexistari aurre egiteko sortu genuen Durangoko zenbait

pedagogok, kazetarik, etxeko andreak, dendarik eta askotariko andreak, orain dela bederatzita urte, Ofelia Hernándezen

hilketaren ondorioz. Harrezkero etengabe saiatzen gara indarkeriarik gabeko bidea jorratzen, eta horrela jarraitu beharko dugu bidegabekeria honek dirauen bitartean, azaroaren 25ean ez eze, urteko gaitzaren egunetan ere.

Gure helburuen artean dugu emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako prebentzio kanpainak bultzatzea. Era berean, jardura soziokulturalak ere sustatzen ditugu, beti ere emakumeok hainbat esparrutan egin ditugun ekarpenak ezagutarazita.

Indarkeria sexistaren aurkako manifestaldiak eta asteroko elkarretaratzeak antolatzen ditugu. Prestakuntza prozesuak garatzen ahalegintzen gara gizon eta emakumeon arteko

ezberdintasunak gero eta txikiagoak izan daitezen, batez ere Andraguneak antolatzen dituen jabekuntza ikastaroetan irakasle zein ikasle gisa parte hartuta.

**Helburuak lortzeko  
Berdintasunerako  
Durangoko Udala  
Kontseiluan parte  
hartzen dugu**

Plataformaren helburuak lortzeko Berdintasunerako Durangoko Udala Kontseiluan parte hartzen dugu. Emakume taldeen arteko esperientzien trukean ere aritu gara. Duran-

goko Bateginez GKEagaz elkarlanean dihardugu Guatemalako San Miguel de Pochutako emakumei indarkeria girotik ateratzen laguntzeko. Sartu erakundearen Zubiguneak izeneko egitasmoan ere parte hartzen dugu. Eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Tartekaria sareko partaide ere bagara.

Gure lana Durangoko herritar guztiari zuzenduta dago, uste dugulako indarkeria matxista emakumeen parekidetasun ezaren icebergaren punta baino ez dela, eta alde guztietatik egin behar dugula putz, harik eta gaitz hau desagertu arte. Gure plataformak atek zabalik ditu, parte hartu nahi baduzu, hona hemen gure e-maila: [andreak@hotmail.com](mailto:andreak@hotmail.com) denontzat lan zeregina dago.

# Gorputz perfektuaren amaraunean kateatuta

Indarkeria sinbolikoaren kontra dihardu Medicusmundi Bizkaia elkarteak

> **DURANGO** Jone Guenetxea Ez da ikusten, baina hor dago. Indarkeria sinbolikoa emakume guztien bizitzan dago barneratuta. Emakume perfektuaren irudiari buruzko estereotipoak eta ereduak nonahi ditugu. Iragarki batean, arropa denda batean... Victoria's Secret barruko arropa ekoizten duen enpresaren azken kanpaina egoera horren adierazle da. *The Perfect Body* (gorputz perfektua) kanpaina eredu bera jarraitzen duten hainbat modelo agertzen dira, emakumeen artean dagoen aniztasuna kontuan hartu barik. Britainia Handiko hiru ikaslek 30.000 sinadura batu dituzte bi astean gorputz perfektuaren kanpainaren kontra, *Change.org* webgunearen bidez. Horre-

**Emakume perfektuaren irudiari buruzko estereotipoak nonahi daude**

**'Ez nago salgai, eta zu?' kanpaina Medicusmundik Guatemalan sortu zuela azaldu dute**

la, kanpainaren bultzatzaileek goiburua aldatzea erabaki dute: *A body for everybody* (emakume bakoitzarentzat gorputz bat). Beraz, protestatzeak izan du eraginik.

Egoera horregaz ohartuta, Medicusmundi Bizkaia elkarteak *Ez nago salgai, eta zu?* kanpaina jarri du martxan azaroaren 25era begira. Kanpaina hori Guatemalan sortu zen, baina herrialde guztiei eragiten diela azpimarratu dute. Itziar Irazabal Medicusmundiko ordezkariak dioenez, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean indarkeria mota hori salatzea dute helburu. "Indarkeria fisikoa da komunikabideetan gehien agertzen dena, baina emakumeok egune-



**Dove Real Beauty Campaign**



Victoria's Secreten eta Doven kanpainak.

ro-egunero indarkeria sinbolikoa sufritzen dugu". Indarkeria mota horrek emakumeen osasun fisiko eta mentalean zuzenean eragiten du. "Estereotipo bat dago, eta denok izan behar dugu horrelakoak: argalak, ile luzedunak, titi handiekin... Hori lortzen ez duen jendearen artean arazo asko sortzen dira. Anorexia, bigorexia, depresioa eta norberaren gorputzagaz gustura ez egotea".

## Doveren kanpaina

Estereotipoen nahasmen honetan bada hankak lurrean dituenik, eta publizitate kanpainetan emakumeen arteko aniztasuna balio erantsi gisa erabiltzen duenik. Dove xaboi enpresa da horren adibide argiena. Bere kanpainetan neurri eta kolore guztietako emakumeak agertzen dira. Kalean topatu daitezkeenetakoak, lodieraren gainetik beraien gorputzagaz gustura sentitzen direnak.

## Nerabeekin lanean

Medicusmundi Bizkaia nera-

beekin hartu-eman handia du. "Adin horretan beraien balioak eta printzipioak sakontzen dabiltza. Hedabideetatik jasotzen duten mezua da, horrelakoak ez badira, bizitza honetan ez dutela zereginik". Egoera horri buelta ematea zaila dela aitortu du Irazabalek. "Gure aurrean duguna oso makineria gogorra da. Komunikabideak, moda dendak... Gu saiatzen gara ikastetxeetan eta beste espazio batzuetan gazteekin lan egiten eta beraiekin estereotipoak lantzen. Saiatzen gara ulertarazten mota askotako emakumeak daudela munduan eta ez garela gure fisikoagatik bakarrik garrantzitsuak". Autostimua lantzen dute gehien.

## Gizonenganako presioa

Medicusmundi Bizkaia dio, maila txikiagoan bada ere, gizonetako ere jasaten dutela estereotipoen presioa. "Mutlengan bigorexia kasu gehiago ikusten gabilta: *matxakatu* beharra. Gorputz landuak, *txokolate tabletak*, beraiantzat ere presioa izaten dira".

## Indarkeria sinbolikoaren aurkako kanpaina

**ez nago salgai, eta zu?**

**yo no me vendo ¿y tú?**

Laguntzailea [www.medicusmundibizkaia.org](http://www.medicusmundibizkaia.org)  
944 127 398  
Begoñako Andramari 20, behea, Bilbo

Antolatzailea **medicusmundi** bizkaia

Laguntzailea **BFA DFB**

**Osasuna denon eskubidea**

## GURE KANPAINAN PARTE-HARTU!

1. Irudia zure Whatsappeko profilean jarri.
2. Medicusmundi Bizkaia Facebookaren orrialdearen lagun egin, eta kartela zure Facebookeko horman partekatu.
3. Kartela ahalik eta gehien zabaldu zure kontaktuen artean.
4. Medicusmundi Bizkaia elkarteak emakumeen gorputzen kontrako indarkeria salatze berriazko bi abesti proposatzen ditu: 'Mi cuerpo no se vende' eta 'Zauriak' (Esne Beltzak eta Olaia Aretxabaletak egindako kolaborazioa). Bat hautatu eta mugikorrean jarri tonu gisa. Informazio eta baliabide guztiak:

[www.medicusmundibizkaia.org](http://www.medicusmundibizkaia.org)

Gainera, adi egon gure Facebookean azaroaren 21ean zabalduko dugun bideoari! Mujeres Imperfectas-en esku, gerrilla-ekintza bat proposatuko dizuegu zuen inguruan emakumeen kontrako estereotipoak salatzeke

# 8 C-MAX '0 km' LIKIDATUKO DITUGU



**FORD C-MAX 0 Km**  
► **EDITION Ecoboost**  
Auto-Start-Stop 125 ZP  
5 urteko garantia / 100.000 km

**14.990.00€**

Pive+ finantziazioa

**EDITION PAKETEA**

Atzeko eta aurreko aparkaleku sentsorea  
Active City Stop  
Aurreko laino argiak  
Bidaia kontrola abiadura-mugagailuarekin  
QuickClear haizetako termikoa

**IKUSGAITASUN PAKETEA**

Euri sentsorea  
Argi sentsorea  
Barruko atzerako ispilu autokromikoa

**FORDKONDIA**

Otaola etorb. EIBAR  
Tel.: 943 207 650

**ZIORLA AUTOAK**

Santa Maña kalea, 19 IURRETA  
Tel.: 946 815 135



ford.es

# Bostehun kulturgileren topagune izango da Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra

Aste bi barru hasiko da Durangoko Azoka, eta, eguaztenean, Plateruenean egin zuten aurkezpen ofiziala



Azoka babesten duten erakundeen eta Gerediaga Elkartearen ordezkariak elkartu ziren prentsaurrekoan.

**> AURKEZPENA** Itsaso Esteban Nerea Mujika Gerediagako lehendakaria, Lutxo Egia Durangoko Azokako guneen ordezkaria, Atziber Irigoras Durangoko alkatea, Ana de Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria, Jose Manuel Bujanda Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordea, eta BBK, Eroski eta Euskaltel babesleak ordezkariak elkartu ziren eguazteneko agerraldian. Hitza hartu zuten erakunde guztien ordezkariak azpimarratu zuten

Autoekoizpenek ere lekua izango dute Durangoko Azokan, hamasei partaideren eskutik

Durangoko Azoka estrategikoa dela euskal kulturarentzat eta euskararentzat: gazteak euskara hurbiltzeko zein kohesio sozialerako azokak daukan garrantzia azpimarratu zuten.

Nerea Mujikak azpimarratu zuen inoizko sortzaile kopuru handiena hartuko duela Durangoko Azokak aurten. Autoekoizpenek, aurten lehenengoz, euren lekua izango dutela azpimarratu zuen Gerediagako lehendakariak: hamasei sortzailek erakutsiko dute euren lana

bertan. Azoka kulturgintzaren errealitate berrietara egokitu guran, hori beste pauso bat dela azaldu zuen Mujikak, “azokaren ohiko arauetatik kanpo geratzen direnei ere leku egiteko”.

222 nobedade literario eta 61 disko aurkeztuko dituzte sortzaileek Durangon

Areto Nagusian, bestalde, iaz baino erakusmahai gehiago izango dira aurten: 245 guztira. Horietan 222 nobedade literario eta 61 disko aurkeztuko dituzte sortzaileek. Gunerik gune, 150 kultur ekitaldi baino gehiago hartuko ditu Durangok abenduaren 5etik 8ra.

Abenduaren 5ean irekiko ditu ateak Durangoko Azokak, 10:30ean, Ikasleen egunagaz. Egun horretan, arratsaldean, 18:30ean egingo dute inaugurazio ekitaldia. Bestetik, abenduaren 6an, 20:00etan emango du Gerediaga Elkarteak aurtengo Argizaiola saria: euskal mitologiaren ikerkuntzan egin duen lan eskerga eskertu gura diote

sari horregaz Anuntzi Arana (Aiara, Araba, 1947) antropologoari. Angelun (Lapurdi) bizi da gaur egun Arana, eta 1996. urtean argitaratu zuen bere lan nagusia: Orozko haraneko kondaira mitikoak aztertu zituen, eta bilduma osatu. Gerediagak azaldu duenez, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Aranak argitaratu zuen lehenezgoz tesi bat euskaraz. Oier Guillan idazleak zuzenduriko San Agustingo ekitaldian emango dio Gerediaga Elkarteak Argizaiola Aranari.

## Okzitania Durangon

Okzitaniako kultura eta hizkuntza gonbidatu dituzte 49. Durangoko Azokara. “Mugakide eta bizikide gara, baina neurri batean ezezegunak ere bagara, eta elkarren arteko ezagutzan sakontzeko aukera izango dugu”, azaldu zuen Nerea Mujikak.

Esaterako, *Okzitania, herrialde batetik haratago etorkizun kosmopolita* berbaldua eskainiko du Akitaniako Ingurumen, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko kidea ere baden Sèrgi Javaloyès idazleak, abenduaren 5ean, Durangon; euskarak eta Okzitaniak historikoki izandako harremanen inguruko berbaldua eskainiko dute, Bernat Arrous eta Joaquin Gorrotxategik, abenduaren 6an; Okzitaniako literatura izango da 8an protagonista, eta okzitaniako ipuinak izango dira entzungai egun berean, 17:00etatik aurrera, Sagunganbara gunean.

## **> KRONIKA** > KANTUAREN KANTOIA 2014, DURANGOKO PLATERUENEAN

# Seiurte taldekoen naturaltasuna eta aire freskoa, Plateruenean

Berrizko taldea izan zen Kantuaren Kantoiko hirugarren gonbidatua

## **> MARISA BARRENA**

Gazteek berezkoa duten energia, naturaltasuna eta freskotasuna ekarri zuten Seiurte taldeko mutilek Plateruenera. Musikariak eta entzuleok elkarrengandik gertu egon ginen eguaztenean, eta hurbiltasun horrek sortutako lokarri ikusezin gozoan murgildu ginen 90 bat minutuz. Konturatu orduko amaitu zen saioa.

Durangoko Plateruenean ekimen hau antolatzen urteak daramatzan arren, lehen aldiz parte hartu nuen elkarrizketa musikatuan, eta aitortu behar dut esperientzia atsegina izan zela oso. Plateruek txukun jarri zuten agertokia, argien ñir-ñir fina gehituz.

“Zeinen arin doan denbora” esanez hasi zuen Jonan Hernandezek saioa, eta “pop-rock

melodia bikainen sortzaile den eskualdeko talderik interesgarriena” aurkeztu zuen. Gazteak ditugu berriztarrak, baina taldea ez da atzo goizekoa: 1996-1997an sortutakoa da. Hiru partaide izan ziren eguaztenean; Iokin kantuan eta gitarran, Iñaki gitarran eta Julen perkusioan. Ez zuten ohiko formatua, “berba egitea kosta egiten zaigu”, esan zuten hasieran, baina ondo hartu zuten karretea.

Musika maite dutela eta, lagunartean, presio barik kantatzea atsegin dutela, hobya dela musika egitea eta kantatzea. “Ondo pasatzea” helburu, serioitasuna baztertu barik. “Euskal Herriko zirkuitua gozada bat da”, esan zuten. Asteburu pasa Galiziara joan zireneko oroitzapena, berriz, ahaztezina, “gastro-rock” jarraitzaile su-

tsuak ei dira. Euskaraz abestuta, kanpoan izan duten harrera ezin hobea azpimarratu zuten: Madrilan, Bartzelonan...

Lau abesti eskaini zizkiguten, zein baino zein ederragoak. Eskertzekoa lokinek hainbeste sentimenduz abestu zituen kanten letrak hain argi ulertzea. Gitarra ere ederto astindu zuten Elortza anaiek; Julen saiatu zen perkusioan. Normalean jendaurrean jotzen ez duten *Basamortua* izan zen lehen Kantariak berba bakoitzari eman zion ukituak nor bere basamortura eraman gintuen.

*Jauzia* izan zen hurrengoa: “argiak itzali ziren gau hartan / ikuslerik gabeko jauzia / han gelditu zinen botilari itsasia”. Bakardadearen zirrara barruraino sentitzeko modukoa. Diskoetxeak porrot egin, eta



diskoa egiteko egin behar izan zituztenak eta Durangoko Azokan kartela hartuta diskoak saltzen ibili zireneko komeriak ere kontatu zituzten.

Inspirazio agorraldi baten ondorengo fruitua izan omen zen 4 diskoko *Hilotzarena* abestia. Metafora. Gitarra eskuan hartu, eta gauerdia aldera izaten omen du inspirazioa lokinek, telezaborra ikusten duen bitar-

tean. Ondoren *Atlantida* diskoko *Gauean, gurean, lurrean* abesti biribil eta limurtzaileak disfrutatu genuen.

Bukatzeke, prestatzen ari diren *Ezpalak* diskoko kanta baten aurrerapena entzuteko zoria izan genuen. Dastatze horren ostean, diskoaren zain eta irrikan geratu gara. “Amaitzen dutenean” kaleratuko dute, “presa barik”.

**Kirola**

## Gu Lagunak: 36 urtez afizioaren esentzia gorde duen taldea

Gu Lagunak areto futboleko taldea ondo pasatzeko helburuz sortu zuten Madalenako gazte batzuek

**> ARETO FUTBOLA** M.Onaindia Izenak ondo dioen moduan, lagun girokoa da Gu Lagunak areto futboleko taldea. Ondo pasatzeko helburuz sortu zuten Madalena auzoko gazte batzuek duela 36 urte, eta oraindik ere afizioa da taldearen oinarri nagusia, areto futbolean asko galdu dena. Denboraldi honetan Bigarren Erregionalean lehiatzen dabil taldea, eta seigarren dago sailkapenean. Baina, lehiak harago, taldearen sustraletara jo, eta bere historia errebasatu gura izan du ANBOTOk. Urteotan taldetik igarotako belaunaldietako ki-deak batu dira berbaldira.

Taldearen sortzaileetako bat izan zen Emilio Alonso. Lagunak elkartu, eta Durangaldeko

**“***Ez zegoen aparteko gauza larregi, ez padelik, ez bestelakorik***”**

txapelketetan parte hartzen hasi ziren 1978an; bi irabazi zituzten. Handik urte bira federatu ziren; izan ere, Bizkaian goraldian ei zegoen areto futbola: “Goraldian zegoen, eta ez zegoen aparteko gauza larregi, ez padelik, ez bestelakorik”. Espainiara joateko aukera ere eduki zuten, baina ez zuten dirulaguntzarik lortu. Ramon Astola ere lehenengo belaunaldi hartakoa da, eta zelako giroa bizi zuten azaldu du: “Tabirako eta San Faustoko torneoak, Gabonetako maratona... Futbol giroa zegoen, eta datak markatuta zeuden. Kuadrillan egon, trago batzuk hartu, elkarte gastronomikora joan...”.

Baina areto futbolaren bultzatzaile hauek beste kirolen eta kirolzaleen artean lekua egin behar izan zuten. Horregatik, Astolaren arabera, hasiera ez zen guztiz erraza izan. “Behin, entrenatzeko ordua hartuta geneukan Tabiran, eta Tabirakoko talde bat zegoen entrenatzen. Bertatik joateko esan ziguten, baina kantxa erdian jarri ginen. Udaltzainak etorri, eta gu ateratzen saiatu ziren. Orduan, udaletxean ofizializatzeari lortu genuen”.

1990eko hamarkadaren amaiera aldera interesatu ziren Asier Urien eta bere lagunak areto futbolean. Baina ez zuten erreferentziarik, eta Durangon federatuta Gu Lagunak bakarrik zegoela konturatu ziren. Estatutuen tramiteak eta saihesteko, taldearen filiala sortzea adostu zuten, Gu Lagunak B. “Jokatzen hasi, eta mailaz igo ginen, Bigarren Mailatik Lehenera. Gero, Maila Gorena ere bai, eta zuek bajatzen hasi zineten apur bat... Ia harrapatu zintuztegun!”, gogoratu dio Urienek Astolari. 41 urtera arte jokatu zuen Astolak; bazeukaten meritua, beraz.

### Kiroldegirako pausoa

Urienen taldeak kalean jokatetik kiroldegietarako pausoa ezagutu zuen. Astolaren sasoiaren luxua zen aterpea: “Bilbon, behin, ilundu egin zitzaizgun, eta euria zen: ez zen ezer ikusten. Baloia metro eta erdi irteten zen, baina jokatzen segitu genuen”.

Urienek bitxikeria legez kontatu du zelan eman zieten erreleboa: hurrengo taldean erretako askoren anaiak zeuden. Gainera, A taldekoek ere utzi, eta talde bakarra osatu zuten.

Oraindik ere zaletasunak du indarra Gu Lagunak. Koldo Andérez da gaur egungo jokalarietako bat, eta bere kuadrillaren inguruan mugitzen da taldea. “Urtebetez entrenatu bakarrik egin nuen, eta gero taldean sartu nintzen”. Entrenamenduetan partiduak jokatzen dituztela dio, ondo pasatzeko, eta Astolak filosofia beragaz erantzun dio. “Taldeari maila handiagoa eman gura zion bati ezetz esan genion. Kornerrak eta jokaldiak entseatzeko hori...”.

### Lagun giroko anekdotak

Kuadrillaren filosofia jarraitzeak anekdota ugari ekarri dizkie, eta gorabehera asko ere bai. “Behin Laukizen kontra jokatu behar genuen, eta uste genuen Laukarizen zela. Han ibili ginen kiroldegia bilatzen...”, dio Urienek. Andérez ere antzera ibilia da: “Partidua hasteko hogeita minutu falta zirela ez genekien kiroldegia non zegoen”. Barrez gogoratzen dituzte lagunekin bizitako istorio horiek.



Ezkerretik eskumara, Astola, Andérez, Urien eta Alonso.



Gu Lagunak taldeko lehenengo belaunaldia.



Bigarren belaunaldikoak, neurketa baten aurretik.



Gu Lagunak gaur egun osatzen duten gazteak.

# Zelaiaren egoera hobetzeko neurriak eskatu ditu Durangoko Kulturalak

Belar artifizialeko zelaia gastatuta dago, eta ez du ura behar moduan iragazten



Orain hamabost egun izandako zaparrada baten ostean, futbol zelaia ura iragazi ezinda geratu zen. Kulturala.

**> FUTBOLA** Joseba Derteano Tabirako futbol zelaiaren egoeraz kezka da Durangoko Kulturala futbol kluba. Belar artifizialeko zelaia gastatu egin da urte askotako erabileraren ondorioz, eta aldatzea beharrezkotzat jotzen dute. Udalean hainbat bider egin dute eskaera, baina, aurrekontu faltagatik, oraingoz ez dute aldatu.

Tabirako futbol zelaiari belar artifizial berria ipini ziotenetik hamar urte joan dira. Denbora honetan guztian urteko 35.200 lagunengoa joan-etorriak (Kultural eta Ezkurdi taldeetako jokalariek, esaterako) jasan ditu.

Gaur egun zelaiaren sortzen den arazo nagusia da ez duela ura iragazteko ahalmen nahikorik. Urteen poderioz, zelaia gas-

tatu egin da; hasieran bost-sei zentimetroko lodiera zuen, eta gaur egun zentimetro batekoa, Fernan Bilbao Kulturalako presidentearen esanetan. "Eurria egiten duenean, zelaiak ez du ura iragazteko ahalmen nahikorik, eta goian geratzen da", azaldu du. Arazoa bistaratzeko, ordea, ez dago euriari itxaron beharrik; baloia hobeto mugitu

dadin zelaia bustitzen dutenean ere ura gainealdean geratzen da. Kulturalako zuzendaritzak hainbat batzar izan ditu udal ordezkariekin, baina urtea amaitu aurretik berriro batzeko eskaera egin dute.

Durangoko kirol arloko zinegotzi Ander Gorrotxategiren esanetan "aurrekontu falta" da oraingoz zelaiako belar artifiziale ez aldatzeko arrazoi nagusia: "Joan zen denboraldi amaieran egiteko asmoa genuen, baina azkenean ezin izan zen, aurrekontu faltagatik. Egin nahi dugun lana da, baina, nahi dugunean barik, ahal dugunean egin behar dugu". Gorrotxategik adierazi du denboraldi honen amaieran, futbol zelaia libre dagoenean, zelai berria jartzeko intentzioa dutela, baina ezin duela ezer ziurtatu: "Aurrekontuaren menpe dago".

Zelai nagusiaren ondoan, zazpiko futbolerako beste bat dago. Bertan aritzen diren gazte guztientzat aldageletan toki nahikorik ez dagoela dio Bilbaok: "Aldagelak bete egiten dira, *overbookinga* dago". Irtenbide gisa, Tabirako kiroldegiko aldagelak egokitzea eta gazte batzuk bertara bideratzea proposatzen du. Zelai hori egin zenean klubari zelaia diseinatzeko aholkurik eskatu ez izana ere kritikatu du.

## ADITUAREN TXOKOA



**Kepa Arroitaia**

Pilota teknikaria

### Pako gogoan

Bizkaiko pilotazaleak zorioneko dira. Domekan urteko pilota partidu handienetakoa, kaiolako Irujo-Bengoetxea finalaurrekoa, Bizkaia frontoian ikusteko aukera izango baita. Partidu ikusgarria izango da seguru, eta, bertan, *gure* kantxan izatea pozgarria da, nola ez. Nire ustez, Irujo faborito eta garaile!

Dena den, beste hitzordu garrantzitsu bat ere bada hemen, Durangaldean. Ordu batzuk lehenago eta Elorrioko udal pilotalekuan, maiatzean bat-batean zendu zen Pako Arroia pilotazale eta pilotagilea omenduko dute bertako pilota eskolek. Betiko hitzak dira agian, baina merezitakoa izango da, benetan, eskainiko zaion omenaldia. Gure kirol preziatuaren alde lan handia egin zuen elorriarrak, hain zuzen, ume askori, pilota munduan sartzea ahalbidetzeko, materiala jarri baitzien eskura. Asko gara Arroiaberen pilota poltsikoan erabilitakoak, edozein tarte berori apurtzeko baliatzen genduenak. Noski, gero beste bat edukitzeko!

Domekan, mutiko asko izango dira kantxan eta harmailetan, eta jada hain mutiko ez diren baina pilotan Pakoren materiala erabilitakoak ere beste hainbeste. Harro egongo da, dagoen tokian dagoela, Arroia. Gaztetxoeren pilota gustuko duenak, omenaldia ere tarteko, hitzordu ederra dauka igande goizean, Elorrioren.

Ez nuke aipatu barik utzi nahi aurreko egunean Iruñean jokatu den Trinkete Tourreko bertako MPB saria. Rober Uriarte, Mikel Gonzalez eta Ander Antxia bertan arituko dira, horiek ere Pakoren pilota poltsikoan erabilitakoak, seguru.

# Pako Arroiabe gogoratuko dute domekan, Elorrioko pilotalekuan

Maiatzean hil zen, 69 urte zituela, pilotari eta pilotagile elorriarra

## > PILOTA

Pako Arroiabe elorriarra maiatzean hil zen, 69 urte zituela. Pilotaria izan zen bigarren mailan, baina pilotagile gisa egin zen ezagun. Urteetan esku pilotari egindako ekarpena eskertzeko, Durangaldeko pilota eskolek oroimen ekitaldia antolatu dute domekarako, 10:30ean, Elorrioko pilotalekuan.

Pilotazaleak eta pilota eskolak daude ekimenaren atzean. Durangaldeko pilota eskolak ez ezik, Markina eta Lekeitio ingurukoek ere parte hartuko dute ekimenean. Gaztetxoeren arteko

partiduek osatuko dute egitaraua; benjamin eta kimu mailako sei-zazpi partidu jokatu dituzte, eta benjamin aurreko partidu bat ere bai, Elorrioko pilotari gazteekin; azken partidu horretan Arroiaberen ilobak jokatu du. Arroiaberen senitartekoentzat oroigarri bat ere egongo da, uztailean Elorrioren jokatu zen Bizkaiko Herriarte finalaren aurretik egin zuten moduan. Orduan, Arroiaberen argazkiekin osatutako bideo lan bat ere eskaini zuten.

Elorrioko pilota elkarteak Evaristo Arandok gogoratu

duenez, Arroiabek "barru-barrutik bizi zuen pilota". 40 urte baino gehiagoan esku pilotarako pilotak egin zituen. Bizkaiko federazioko eskolarteko txapelketarako pilotak egiten aritu zen, esaterako; baita Munduko Txapelketarako ere. "Pilotazalea zen, eta beti erakusten zuen interesa egindako piloten inguruan. Pilotalekuetara eskotan joaten zen, eta bertatik bertara ikusten zituen pilotak. Pilota partiduak ere asko gustatzen zitzaizkion". Zaldibarko eta Lezamako txapelketetan, esaterako, ohiko ikuslea zen.

## Gazte mailan derbia Mallabia eta Elorriokoren artean, domekan

### > ARETO FUTBOLA

Gazte mailako Bigarren Mailan derbia jokatu dute domekan, 17:00etan, Mallabiak eta Elorrioko Buskantzak. Zaldibarko kiroldegian jokatu dute partidua. Zortzi jardunaldi joan dira dagoeneko, eta talde biak goiko postuetan dabilta. Elorrioko Buskanta bigarren kokatuta dago, Santurtzi liderrengandik puntu bira; Mallabia laugarren tokian dago, eta Elorriokok baino lau puntu gutxiago ditu. Talde biek 35 gol sartu dituzte, baina Elorriokok hamaika gutxiago jaso ditu.

# GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

katerin ardoak  
iñaki uribe  
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**





## Euskal esne bildotsa

### Garaiko jaki paregabea, % 100 naturala

Eusko Label ziurtagiria duen benetako arkumea Euskal Herriko latxa eta karrantza arrazakoa da. Beren amaren esneaz soil-soilik elikatu da, eta hiru eta bost aste artean dituen hiltzen da, eta horri esker haragi samur eta zapore gozokoa du.

### Horrela identifikatzen da

Eusko Label ziurtagiria duen benetako arkumeak lau etiketa ditu, laurden bakoitzean bat, eta horietan honako hau adierazten da; hiltegia, noiz hil duten, kontrol-zenbakia eta Eusko Labelaren bermea.



## Arabako patata

### Lurpeko altxorra

Klimari, lurrari eta tradizioan oinarritutako lanari esker, gaur egun, Arabako patata goren-gorenko kalitatezko elikagaitzat hartzen du kontsumitzaileak.

Eusko Label ziurtagiriak ezarritako kalitate-azterketa gainditzen dituzten patata motak bakarrik babesten ditu.

Ingurumenarekiko errespetu osoz erein, hazi eta bildu ondoren, patatarik onenak hautatzen

dira elikagai osasungarria, homogenea eta kalitatezkoa eskaintzeko.

### Horrela identifikatzen da

Eusko Label ziurtagiria duen Arabako patata poltsa desberdinetan aurkituko duzu, kanpoko aldean Eusko Label ziurtagiriaren logotipoa duela, hori baita produktuaren benekotasunaren berme bakarra.

## Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkartearen ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupoia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzeko aukera duzu; ANBOTOrri babesa emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!  
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@ <b>anboto@ anboto.org</b>	☎ <b>946 816 558</b>	✉ Izen-deiturak <input type="text"/> Helbidea <input type="text"/> Herria <input type="text"/> Posta kodea <input type="text"/> Telefonoa <input type="text"/> Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
------------------------------------	---------------------------------	---



**Anbotoren lagunen artean Eusko Label produktuen otzarak zozkatuko ditugu**

**anboto**  
*Lagunak*



**anboto**

# Durangaldeko Bizikleta Eskola abenduan jarriko dute martxan

Durango, Elorrio, Abadiño eta Iurretako txirrindulari elkarteek sortu dute



Durangoko txirrindulari elkarteak gazteei zuzenduta antolatutako ginkana bateko irudia.

## > TXIRRINDULARITZA J.D.

Lau txirrindularitza taldek Durangaldeko txirrindularitza harrobia sustatzeko indarrak batzea erabaki dute. Durangoko, Elorrioko (Atxondoraino heltzen da), Iurretako eta Abadiñoko txirrindularitza taldeek, elkarlanean, Durangaldeko Bizikleta Eskola abiatuko dute abenduan. Eskola 7 eta 14 urte arteko gaztetxoei bideratuta egongo da, eta hainbat espezialitate landuko ditu.

7 eta 14 urte arteko gaztetxoei bideratuta dago; hiru mailatan banatuko dituzte

“Indarrak batuta, elkarlanean, indar handiagoa egin dezakegula uste dugu”, adierazi du Duranguesa txirrindulari elkarte Ibon Atxotegik. Horrela,

umetatik hasi eta nagusietara arteko maila guztiak bermatuta egongo dira Durangaldetik irten beharrik gabe. Gainera, batera ibiliz gero, baliabideei ahalik etekinik handiena ateratzea da asmoa. Gazteak txirrindularitzara zaletzea, ofizioan trebatzea eta balioak txertatzea dute helburua.

Eskolak Berrizko belodromoan izango du egoitza, eta Ibon Atxotegiren, Joseba Gorostizaren (Elorrioko eta Abadiñoko

## Berrizko ziklo-kros proba belodromotik abiatuko dute

Domekan jokatu dute Berrizko ziklo-kros proba

### > TXIRRINDULARITZA

Euskaldun Torneorako puntuagarria den Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia lehiatuko dute domekan, Berrizburu inguruan atondutako zirkuituan. Zirkuitua iazko bera da, aldaketa txiki batzuekin, baina aurten lehenengoz belodromotik irtengo dira txirrindulariak. Oraintsu eraberritua izan den belodromoak erakusteko hartu dute erabaki hori probaren antolatzailerak diren Berriz Bizikletari Elkarteak, Berrizko Udalak eta Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak.

Lasterketa maila guztietan lehiatuko dira, gizon zein emakumeetan. Aurreko aldietan legez, 200 parte-hartzailetik gora batzea espero dute. Kadete mailako neska-mutikoak izango dira irteten aurrenekoak, 10:00etan. Ondoren, 11:00etan,

junior mailako txanda izango da, eta emakumeen elite eta 23 urtez azpikoena ere bai. 12:00etan Master 30, 40, 50 eta 60 mailakoak irtengo dira belodromotik; azkenik, 13:00etan, gizonen elite eta 23 urtez azpikoen txanda izango da.



Iazko Berrizko probako une bat. Berriz Bizikletari Elkarteak.

txirrindularitza elkarteak) eta Patxi Torregrosaren (Iurretako Bira Emakumeen Ziklismo Kirol Elkarteak) artean zuzenduko dute. Abadiño, Durango, Elorrio, Iurreta eta Atxondoko udalen diru laguntza jaso dute proiektuagaz aurrera egiteko; jantziekin Caja Ruralek lagunduko die.

Eskola zazpi eta hamalu urteko gazteei zuzenduta dago. Hiru mailatan banatuko dituzte; hasiberriak (10etik beherakoak),

35 gaztetxogaz hasiko dira, eta sortu berri duten wegbunean eman daiteke izena

kimuak (11-12) eta haur-kategoriakoak (13-14). Abenduan 35 gaztetxogaz hasiko dira, eta interesatuak sortu berri duten wegbunean eman dezake izena: [www.durangaldekobizikletaeskola.com](http://www.durangaldekobizikletaeskola.com).

Denboraldia bi epealditan banatuko dute: Aste Santura arte eta Aste Santutik denboraldia amaitu arte. Martxo-apirilera bitartean astean behin batuko dira, asteburuan. Handik aurrera astean bi edo hiru egunetan batzea da asmoa. Hasiberriak eta kimu mailakoak BTTan hasiko dira bizikletan, eta haur-kategoriakoak BTTan zein errepedean. Entrenamenduetarako bidegorriak eta belodromoak erabiliko dituzte, besteak beste, eta ginkana eta antzeko jokoak ere egingo dituzte.

## David Garciak laugarren bider irabazi du Bilboko Herri Krosa

### > KORRIKA

David García korrikalari durangarrak bere ibilbidean laugarren bider irabazi du Bilboko Herri Krosa. Gainera, azkeneko hirurak bata bestearen atzetik lortu ditu. Honako hau izan zen bere denbora joan zen domekako lasterketan: 31.27.

Hasieratik erritmo bizia markatzea lortu zuen, eta ibilbideko zatirik handiena bakarrik egin zuen. Bere errendimenduagaz gustura geratu zen: “Oso pozik nago egindako lanagaz”, adierazi du.

Orain asteburu bi, Behobia-Donostia lasterketan hamar onenen artean sailkatu zen ia; azkenean hamaikagarren amaitu zuen (1.06.26); zazpi segundo arinago sailkatu zen Ander Sagarzazu. 2015ean “lehentasunen” artean izango du Behobia-Donostia.

## AGENDA

### > FUTBOLA

#### HIRUGARREN MAILA

**Durangoko Kulturala - Beasain**

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

#### OHOREZKO MAILA

**Iurretako - Urduliz**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**Elorrio - Somorrostro**

· Zapatuan, 15:30ean, Eleizalden.

#### MAILA GORENA

**Abadiño - Ermua**

· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

**Zaldia - San Pedro**

· Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian.

#### LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

**Iurretako - Ugao**

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

**Elorrioko - Adiskideak**

· Zapatuan, 17:30ean, Eleizalden.

### > ARETO FUTBOLA

#### EUSKAL LIGA

**Sapuberri - Atxurre bakio**

· Zapatuan, 19:15ean, Landakon.

#### MAILA GORENA

**Sasikoa B - Lau Lagun**

· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

#### LEHENENGO ERREGIONALA

**Presion Break - Gernikako**

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizburun.

**Elorriko Txiki - Otxartabe B**

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kiroldegian.

#### EMAKUMEEN LIGA

**Elorrioko Buskantza - Lagun Onak**

· Domekan, 12:15ean, Elorrioko kiroldegian.

**Sasikoa - Zorrotzako**

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

### > SASKIBALOA

#### ZILARREZKO ADECCO LIGA

**Zoronotza S.T. - Tarragona**

· Domekan, 18:00etan, Larrean

#### LEHEN MAILA (gizonak)

**Tabirako-Baqué - Universidad Deusto-Loiola**

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

#### LEHEN MAILA (emakumeak)

**Tabirako-Baqué - Lagunak**

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

### > ESKUBALOA

#### EMAKUMEEN LIGA

**Ibaizabal - Errotabarri**

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

### > PILOTA

#### OLAZAR TXAPELKETA

**Lau Terdi: Etxebarria-Mendi Binaka: Agirre-Diez / Arteaga-Galarza**

· Azaroak 27, 21:30, Zaldibarren.

**Lau Terdi: Ugalde-Olaizola Binaka: Azpiri-Imaz / Dorronsoro-Perez**

· Azaroak 28, 21:30, Zaldibarren.

# DENBORAREN BALIOA

Udako oporrak bukatu berri zirela, lanerako lehen lan eguna zen bat-batean nire adiskide Eneko iratzargailuak goizeko zazpitan bere soinu zalapartatsua jotzearen ondorioz, erabat ikarak jota itzartu zueneko. Begi bat zabaldu eta bere ezker eskua luzatuz zaplazteko bat iratzargailuari eman zion, bere soinu ozen eta desatsegina etetea lortuz. Zutuntzeko ahalegina egin ondoren, oporraldiaz geroztiko lehen lan eguna zenez, iratzargailua ohikoa zen baino ordu erdi arinago jotzeko programatu zuenaz ohartu zen.

Lanera zein alkandora eramango zuen erabaki eta jantzi ondoren botoi faltan zegoela ikustean josteari ekin zion eta, ondorioz, armosua jan gabe gelditu zen. Lanerantz zihola, eraman beharreko agiriak etxean ahaztuta utzi eta etxera berriro itzuli beharra izan zuen. Lanera, jakina, ordua baino hamabost minutu beranduago heldu zen. Idazkariak, denbora horretan jasotako dei ugarien berri eman zion, erantzuteke zituela adieraziz.

Ordenagailua piztean, posta elektronikoa gutunez gainezka ikusi zuen eta erantzuten hastean bere nagusiak hamar minutu geroago ospatzekoa zen premia batzar batera joan beharra zuela iragarri zion, Sailean jaso berri zituzten bitxosten batzarrera irakurrita eramatea aginduz. Apur bat lasaitzeko, batzarra hasi aurretik kafesne bat hartzea erabaki zuen eta bere urduritasunaren eta alboan zuenaren bultzadak eraginda, kafesnea alkandora gainera erori zitzaion.

Enekoren anabasa, denbora egokitasunez kudeatu eta atera diezaiokeenik etekinik gorena ateratzeko planifikazio zehatz eta neurturik ez izanak eragin-dakoa da.

Denbora falta da herritarren gehiengoaren kezurik adieraziena. Baina denborarik ezaren sentipena gutxitzeko edota egunean zehar erabilgarri dugun denbora hobeto kudeatzen has-teko ezer gutxi egiten da, bihar gaur baino denboraren erabilera egokiagorako, ezer horretarako egin gabe, gaitasun erantsirik edukiko dugulakoan edota horren itxaropenean behintzat biziz.

Eta itxaropen horretan egonaz, baitaratuta ditugun ohituren agindupean garela, gauzak beti bezala, gure jardueretan hobekuntzarako urratsik nekez emanez, denboraren erabilera desegokia eginez jarraitzen dugu, hori horretara izatean ezer

galduko ez bagenu bezala, egun ez egindakoak beste une aproposago baterako utziz. Budak esaten zuenez, denbora daukazula uste izatean datza zure arazoa.

Baina errealitatea ez da horrela. Denbora ez da elementu finko bat. Eguneroko denbora elementu finkotzat dugun arren, ez da egia. Zelako jardue-ra egiten dugun, halako denbora behar izaten dugu. Lan bat egiteko bi ordu behar ditugula aurreikusiz gero, bi orduak erabiltzen dira. Zenbat eta lanpetuago egon, denbora are eta arinago igarotzen da. Denbora ere, ondorioz, hedatu edota uzkuritu egiten da.

Gizakiak zenbat eta bere bizitza era kontzientean gidatzeko gaitasun maila handiagoa izan, are eta handiagoa izaten da bere denbora erabilgarria modu konstruktiboan aplikatzeko.

Sarritan unean uneko sentimenduak eginbehar garrantzi-

“Denbora daukazula uste izatean datza zure arazoa” [Buda]

tsuak ez direnetan adigabetzea dakar. Denbora kudeatu eta antolatzeko ditugun ohituretan benetako aldaketak ematen hasi aurretik, egunean zehar ditugun orduak nola darabilzkigun jakin beharra dago. Ezinbesteko neurria horretara jardutea eskura dugun denborari etekinik handiena atera nahi baldin badiogu.

Eguneroko norbere denboraren erabilera txosten zehatzik egiteko gai diren gizakiak oso gutxi dira. Atarian adierazitako gertaeren antzekoak hainbatean ematen dira; ekintza batetik bestera presaren atzaparretan, amaierarik gabeko premietan eta beste ezertan pentsatzeko astirik gabe, buru-belarri sartuta, eta egitekoak ziren bete-beharrak aurreikusitako epean

amaitu ez izanagatik hurrengo egunerako itxi beharra eta antzekoak nahi baino gehiagotan gertatzen dira.

Denboraren kudeaketa desegokiaren hegoetan bizi gara eta urte luzetan horrela izanagatik eta baita denboraren erabilera bikainaren balioarekiko kontzientzia handiegirik ez dagoelako edota denboraren erabilerearen neurketarik egitea inoiz bururatu ez izanagatik, edota norbere betebeharrei erantzutean bizitzan zehar ezarritako ohitura zaharrek jarraitu izanak bakoitzaren jarduerak sakonetik aztertu eta norbere izana eta nortasuna etengabe hobetzen joateko gainditu beharrekoak liratekeen eragozpenen inguruko gaitze prozesurik, oro har, izaten ez delako, ez da denboraren kudeaketaren bikaintasunerako aldaketa nabarmenik izaten. Horren ondorioetariko bat, eginbeharrak geroratzeko izaten den ohituran datza.

Eginbeharrak nola burutu jakin ez izatearren; lan edota betebeharrak jakin bat egitea atsegingarri begitantzen ez zaigulako; denbora falta izaten delako; norbere buruari ezarritako gauzak benetan egin nahi direnaz zalantzakor agertzearren; ekin-tzen bati hasiera emateko bultzadaren baten beharrezan izanak; pentsatzeko denbora behar izatearren... eta antzeko amaigabeko arazo bitarte dirrela sarritan egitekoak geroratu egiten ditugu, horrela hobeto izango delakoan.

Ohiturek aginte maila handia dute. Ohiturak, iraganean hartutako erabakiekiko etengabeko errepikapenetik sortzen dira eta denboraren joanean egoera jakin bati emandako erantzunaren eredu automatiko izatera iristen dira. Ohiturak automatikoak direnez, alerta-egoeren azpitik dihardute. Ondorioz, gerta liteke, denboraren erabilera arautzen duten ohitura moten jakintza maila osorik ez izatea. Denbora-ohituren

ikerketak gizakirik gehienek errentagarritasun oso urriko gaiei denbora larregi eskaintzen diotela nabarmen erakusten digu.

Ikerketa introspektibo horrek denboraren erabilera lehentasun berri batzuk ezartzeko egoera jarriko gintuzke.

Plan bereziak abiaraziz eta plan horiek egikartzeko berriaz erabakitako denbora zehaztuz baino ez da errentagarritasun handiena duten ekintzetan kontzentratzeko modua aurkitzerik izaten.

Ez dezagun ahantzi errentagarritasun handienekoak diren jardueren hautaketa egiterakoan, errentagarritasun

Denboraren kudeaketa desegokiaren hegoetan bizi gara.

gorenko ekimenok garatzeko egokienak diren denbora tarte zehatzen definizioa ere barnean izan beharko litzatekeela. Errentagarritasun txikiko jarduerak, denborarik izanez gero, lehentasun handieneko gaie-tan kokatu beharko lirateke.

Denbora egokitasunez antolatzeko lehentasun eta plangintza berriak ezarri ahala, plangintza horretan beste pertsona batzuk tartean sartzea gero eta beharrezkoagoa izaten da.

Arrakasta, hein handi baten, helburu garrantzitsuak lortzeko ezarritako plangintzen menpe dago. Eta plangintzak helburuen ezarpen zehatza eta helburuok lortzerakoan egin beharreko lan desberdinentzako ezarritako denbora eta denboraren kudeaketa zorrotzaren ezarpenak dira.

Epe luzera plangintzak egiteko denbora tarterik lortzean eragozpenak azaltzen baldin badira, hasi gaitzen eguneroko plangintzarako eta epe laburrean narako diren ekintzetarako denbora aurreikusten. Antolabide guztiz praktikoa eta epe laburreko horrek arrakastaren jarraipen azkarra egin ahal izatea ahalbidetzen du.

Eskarmentu positiboak metatu izanak motibazio handia ematen du eta, bestalde epe luzeago baterako planifikazio eta helburuak ezartzen hasteko konfiantza ematen du.

Denboraren planifikazio egoki eta eraginkorrerako ezinbestekoak dira hurrengo oinarriak gogoan hartzea: plangintzarako sistema bakar bat erabili eta aldean beti eramatea; hilaren bukaeran hurrengo hilabeteko helburu pertsonal eta profesionalak zehazteko bi edo hiru ordu norberetzat gorde; funtsezko lehentasunak antolatzeko agenda erabili; egunero hamar minutu eskaini errentagarritasun gorenko jardueretan eta helburuetan oinarrituz, hurrengo eguneko plangintza egin eta antolatzeko; eguneroko lehentasunak antolatu; egunero, egindakoa eta egiteke gelditu denari buruzko ebaluazioa egin; betebeharrak, zereginak, eta konpromiso guztiak toki bakarrean idatzi; komunikaziorako gaitasuna eraginkortasunez kudeatu eta helburu pertsonal edota profesionaletarako bideratutako aurrerabidea kontrolatu.

Denbora era probetxugarrian erabiltzeak onura asko dakar. Denborari etekinik handiena ateratzeko gai izateak, denbora erabateko probetxugarritasunez erabili izanak, iraganari, bertan lortutako helburu eta garapenengatik, atseginez begiratzea ahalbidetzen digu, eta aldi berean etorkizunari, helburu berriak lortuko diren heinean, emozioz eta itxaropenez behatzea.

Eguneroko xahutu ditzakezun hogeita hamar minutu identifikatu eta denbora tarte hori eraginkortasunez erabiltzeak, produkzio-denborari, urtero, zortzi orduko hogeita bi egunen berdina eranstea dakar.

Ez dezagun ahantzi: denbora dugu bizitzan lortu nahi ditugunak lortzeko daukagun lehendabiziko baliabide erabilgarria. Baina baliabide oso urria denez, eraginkortasunez administratu ezean, ez da beste ezer kudeatzetik izango.

**Gorka Aurre**  
**Prakagorri** - Durango

**irakurri 4**  
**ALDIZ ARINAGO**

Hobetu egizuz zure irakurketa-abiada eta ulermena!  
Errotik aldatuko dozuz zure irakurketa-gaitasunak.  
Irakurketa-abiada handia eta ulermen bikaina.



**PRAKAGORRI**  
*Reading skills*

**94 491 57 63**  
**DURANGO**

**Barrenkale 20**

prakagorri@prakagorri.es

**9 urtetik aurrera, adin muga barik, PRAKAGORRI dozu zure eta zure semeen urtenbide**





# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Azaroaren 22an, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean**

## Pau Vallvé

Bakarka kaleratu duen hirugarren diskoa aurkeztuko du Bartzelonako musikariak Berrizen. 'Pels dies bons' izenburuko lana da, eta Vallvek bere gitarragaz eta pedalekin eskainiko du. Harremani buruzko kantak dira zuzenean joko dituenak: Katalunia iparraldeko Banyoles herrira bizitzera eta sortzera joan zenean sorturikoak.

### Antzerkia

#### :: DURANGO

AZAROAREN 22an

**12:00etan eta 18:00etan,** 'Almazuela-Maindirepean', San Agustinen.

AZAROAREN 23an

**19:00etan,** Arkimedesen printzipioa, San Agustinen.

AZAROAREN 28an

**20:30ean,** 'Sex o no sex', San Agustinen.

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 28an

**22:00etan,** 'Arrastoak', Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

AZAROAREN 21ean

**22:00etan,** 'Arrastoak', Arriolan.

### Musika

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 22an

**20:00etan,** Pau Vallvé, Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

AZAROAREN 22an

**20:00etan,** Santa Zezilia egunaren harira, Tabira Musika Bandaren kalejira, Alde Zaharrean.

**22:30ean,** Cherry Boop & The Sound Makers, Plateruenean.

AZAROAREN 23an

**18:30ean,** Euskal kantak, Plateruenean.

AZAROAREN 26an

**20:00etan,** Kantuaren Kantoia: Siroka. Plateruenean.

AZAROAREN 28an

**21:30ean,** Durang(h)ots Jam Session, Plateruenean.

#### :: ELORRIO

AZAROAREN 21ean

**22:30ean,** Gabacho Connection, Arriolan.

AZAROAREN 22an

**20:30ean,** Santa Zezilia eguneko Berriotxo abesbatzaren kontzertua, Santa Ana elizan.

**22:30ean,** Slam Allen, Arriolan.

AZAROAREN 23an

**20:30ean,** Jose Bluefingers + Txus Blues, Portalekuan.

#### :: IURRETA

AZAROAREN 21ean

**20:00etan,** Euskadi Brass, Aita San Migel elizan.

#### :: ZORNOTZA

AZAROAREN 21ean

**18:00etan,** piano eta kamera musika, Zornotza Aretoa.

AZAROAREN 28an

**21:00etan,** Beñat Egiarte, Zornotza Aretoa.

### Erakusketa

#### :: BERRIZ

AZAROAREN 28ra arte

**18:30etik 20:30era,** Pascual del Rioren lana, Kultur Etxean.

#### :: ZALDIBAR

AZAROAREN 21ean (18:00-20:00), AZAROAREN 22an (12:00-14:00/20:00) eta AZAROAREN 23an (12:00-14:00)

Fernando Retolazaren 'Nepal, mendia eta hiria' argazki erakusketa, Euskal Herria kaleko 8. zenbakian.

#### :: ZORNOTZA

AZAROAREN 28ra arte

Hassan Echair-en 'Horizon Plombe', Zornotza Aretoa.

### Berbaldia

#### :: DURANGO

AZAROAREN 28an

**19:00etan,** 'Adolescencia 2: aprender a motivar a mi hija/o', Udal Liburutegian.

### Kontalaria

#### :: DURANGO

AZAROAREN 21ean

**19:00etan,** Palestinako ipuinak, helduentzat, Udal Bibliotekan.

AZAROAREN 29an

**12:00etan,** Palestinako ipuinak (6 eta 12 urtekoentzat), Udal Bibliotekan.

#### :: ZORNOTZA

AZAROAREN 25ean

**18:00etan,** Ixabel Agirresarobe, liburutegian.

### Lehiaketa

#### :: BERRIZ

ABENDUAREN 15era arte

Emakumeen V. ipuin lehiaketa. Gehienez hiru orriko kontakizunak. Lanak postaz bidali behar dira, Gure Izarrak elkartearen helbidera: 64. posta kutxa, 48240, Berriz.

AZAROAREN 28ra arte

**18:00ak arte,** XVI. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko epea. Informazioa: [www.berriz.org](http://www.berriz.org) webgunean.

### Zinema

#### :: ABADIÑO

AZAROAREN 28an

**20:00etan,** 'El maestro saharai', gaztetxean. Ireki Leihoa Kubari jaialdia.

#### :: DURANGO

AZAROAREN 27an

**18:30ean,** 'Rojavako iraultza, askatasunaren aldeko erronka', Pinondo Etxean. Ireki Leihoa Kubari jaialdia. Newroz euskal kurdu elkarte.

### Batzarra

#### :: MAÑARIA

AZAROAREN 27an

**19:00etan,** Tokiko Agenda 21eko parte-hartze foroa, udaletxeko udalbatza aretoa.



#### :: DURANGO | ZUGAZA

### Juegos del hambre: Sinsajo 1

- barikua 21: 19:30/22:00
- zapatua 22: 19:30/22:30
- domeka 23: 18:30/21:15
- astelehena 24: 18:30/21:00
- martitzena 25: 20:00
- eguaztena 26: 20:15

### Alexander y el día terrible

- zapatua 22: 17:00
- domeka 23: 16:30

### Viajo sola

- eguena 27: 20:30

#### 2. ARETOA

### Escobar

- barikua 21: 19:30/22:00
- zapatua 22: 19:30/22:30
- domeka 23: 18:30/21:15
- astelehena 24: 18:30/21:00
- martitzena 25: 20:00

### Dixie eta matxinada zombia

- zapatua 22: 17:00
- domeka 23: 16:30

#### :: ELORRIO | ARRIOLA

### Perdida

- domeka 23: 20:00
- astelehena 24: 20:00

#### :: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

### Los juegos del hambre Sinsajo (1. partea)

- zapatua 22: 19:30/22:30
- domeka 23: 20:00
- astelehena 24: 20:15

### Las tortugas Ninja

- zapatua 22: 17:00
- domeka 23: 17:00

#### Azaroaren 26an, 20:00etan, Plateruenean

### Siroka Kantuaren Kantoian

Bilboko Siroka laukoteak itxiko du 2014ko Platerueneko Kantuaren Kantoia. Jonan Hernández kazetariagaz, jendaurreko solasaldia eta taldearen kantuen emanaldi akustikoa eskainiko dituzte bilbotarrek eguaztenean, Durangon. Maria abeslariak gidaturiko taldea da Siroka, eta 'Maluitak' izeneko proiektua aurkeztu berri dute azaro hasieran; sei kanta eta biodeklip bat osatu dituzte.



**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguztieneko 14:00ak arteko epea



**> Hogeita bian hogei eta bi** païttak jatzuz gaur ageri, baina urteen joan-etorrian beti bezain ameslari. Zapatuan ospatuko dogu hondartza eta afari, mosu mordoia kuadrillan partez Zorionak politt hori!



**> Rakelek ostegunean,** azaroaren 20an, urteak bete zituen. Zorionak Inhar, Eider eta Ibonen partez. Musu handi bat denon partez!



**> Zorixonak Ezozi!** Astelehen gogorra jausi dan arren ziur nau asteburuen ederto ospatuko dozule! Eguztienien pasta batzun zain egongo gara... kar kar.



**> Durangoko Ekain Montecelok** 9 urte beteko ditu azaroaren 29an. Musu handi-handi bat familia guztiaren partez. Zorionak!



**> Iker San Antón,** zure anaia Ibairen, amaren eta aitaren partez zorionak eta muxu potolo-potoloak!



**> Handitzen, handitzen...** asko maitte zaittugu guk. Zorionak **June** eta mosu erraldoi bat familia osoaren partez.



**> Eskerrik asko txokolate eta pastel goxuegaittik!** Hurrengo urtien eztozu gutxiu eskatuko. Zorixonak eta mosu potolo bat!



**> Zorixonak Arrate!** Egun on bat pasau daixule, eta mosu bat!



**> Gure etxeko arroxaliñ ederrak 3 urte egin dauz.** Zorixonak **Madalen,** eta mosu handi bat eta besarkada estu-estu bat. Muuuuuuuu!



**> Kontuz! Oingo asteburuen Durengok sue hartuko dau eta! Disfratau! Zorixonak eta mosu bat!**



**> Azaroaren 26an Izarok** urtebete egingo dau. Zorixonak gure etxeko printzesari familia osoaren partez. Mosu haundi bat!



**> Azaroaren 21ean Abadiño**ko gaztetxean ospatuko dugun txokolatadara gonbidatzen zaituegu guztioi! Zorionak!



**> Zoorixonak Aitor!** Hori bai hori erregalue! Ia aurtien be holako erregalue jausten dan! Mosu bat!



**> Zorixonak Maria eta Iker** zuen 8. urtebetzean! Gela osoaren partez mosu handi-handi bat!



**> Zorixonak kuadrilla Behobia-Donostian** egindako lanagatik. Primeran pasatu genuen goiza, kirolaz eta giroaz gozatuz. Eskerrik asko. Musu handi bana!

Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

**> Zorixonak Liher Biritxinaga!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**> BOTIKAK**

- BARIKUA, 14** - 09:00-09:00
- **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ZAPATUA, 15** - 09:00-09:00
- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-13:30
  - **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
  - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Unamuzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
  - **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- DOMEKA, 16** - 09:00-09:00
- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- ASTELEHENA, 17** - 09:00-09:00
- **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- MARTITZENA, 18** - 09:00-09:00
- **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Lopez de Aretxaga** (Torresola 4 - Abadiño)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUAZTENA, 19** - 09:00-09:00
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Egaña** (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUENA, 20** - 09:00-09:00
- **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
Ertzaintza ..... **94 466 93 00**

**> GARRAIOAK**

- Euskotren ..... **902 54 32 10**  
Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
Pesa ..... **902 10 12 10**  
Continental Auto ..... **945 286 466**

**> TAXIAK**

- Abadiño ..... **94 681 44 70**  
Matiena ..... **606 459 988**  
Durango Geltokia ..... **94 681 10 01**  
Elorrio Geltokia ..... **94 682 00 40**  
J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
I. Estebez ..... **670 678 273**  
M. Galeano ..... **670 409 330**  
Iurreta .....  
Taxi auzunea ..... **688 618 690**  
Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

**> UDALAK**

- Abadiño ..... **94 621 55 30**  
Atxondo ..... **94 682 10 09**  
Berriz ..... **94 682 45 84**  
Durango ..... **94603 00 00**  
Elorrio ..... **94 658 27 12**  
Garai ..... **94 681 63 93**  
Iurreta ..... **94 620 12 00**  
Izurtza ..... **94 681 35 48**  
Mallabia ..... **943 17 14 61**  
Mañaria ..... **94 681 89 98**  
Otxandio ..... **945 45 00 20**  
Zaldibar ..... **94 682 70 16**

**> UDALTZAINGOA**

- Abadiño ..... **94 621 55 33**  
Berriz ..... **94 682 40 36**  
Durango ..... **94 603 00 00**  
Elorrio ..... **94 682 02 18**  
Iurreta ..... **94 620 08 88**

13° 19° ZAPATUA		13° 19° DOMEKA	
11° 19° ASTELEHENA		7° 18° MARTITZENA	

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**

**Abadiño (Traña-Matiena)**  
Eguaztenetan  
10:00etatik aurrera

**Durango**  
Zapatu goizetan

**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

- Letxuga.....**0,80 euro**  
Letxuga haritz hostoa .....**1 euro**  
Azelga .....**2 euro/kg**  
Espinaka txorta .....**1,20 txorta**  
Berakatz freskoa .....**1,50 txorta**  
Ilarrak .....**6 euro/kg**  
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**  
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**  
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**  
Gari integraleko ogia .....**3,30 euro**

## “Gurasoek arbi-garak ereiten zituzten, baina txikitan ez genituen gustuko”

Otxandion arbi-gara jaki oso preziatua da; Floren Urigoitiak ortuan ereiten ditu

**> AKUILUA** Jone Guenetxea **Ortuan jarduteko sasoi onean egon beharra dago. Ondotxo daki hori Floren Urigoitia 85 urteko otxandiarrak. Ortuan denetarik izaten du, baina bere barazkirik preziatuena arbi-gara da. Prest agertu da ANBOTOri jaki horren sekretuak azaltzeko.**

**Arbi-gara ereiten duzu, baina zer da hori?**

Aramaion erdarazko *naboari arbixe* esaten zaio, eta hortik dator izena. Naborearen erdiko lorea da.

**Zelan ezagutu zenuen arbi-gara?**

Aitak eta amak ereiten zuten, baina txikitan ez zitzaigun gustatzen. Latzak dira. Gustu berezia dute. Beranduago bai; janari gozoa da. Kutsu berezi bat du.

**Zelan prestatzen duzu?**

Birritan egosi behar da uragaz. Azkenengoan pipermin pixka bat botatzen diot. Handik atera, eta bolak egiten ditut ura kentzeko. Izozkailuan ere sartu daitezke, baina ateratzerakoan ura kendu behar zaie berriro. Ondoren, berakatzagaz txikitxiki eginda, urdaia botatzen zaio. Urdaiak ematen dio grazia. Barazkirik onena da.

**Noiz ereiten dira?**

San Bartolome sasoiaren ereiten da, abuztu inguruan. Gero, otsailean batzen dira. Durangaldeko beste herri batzuetan zergatik ez dira onak irteten? Beste herri batzuetan arin garatzen direlako. Garatzen bada,

ez du balio. Hemen hotz handiagoa egiten duenez, denbora gehiago dugu batzeko. Nik eskuagaz batzen ditut. Lagunekin arbi-garagaz afaria egiterakoan batek esan zidan: “Ez diogu inori esango honek onak direnik, bestela denek ikasiko dute prestatzen”.

**Arbi-gara ezin da erosi?**

Pedro Luisek dendan saltzen du, Otxandion. Eskatuz gero, izaten ditu.

**Arbi-gara elikagai aberatsa dela diozu.**

Siku bazau, oso aproposa da. Ura edatea eta ibiltzea ere osasuntsuak dira.

**Jubilatuta zauden arren, baserritik atera duzu bizimodua?** 45 urtean lantegian lan egin dut, eta baserrian ere bai.

**Baserriko bizimodua asko aldatu da?**

Bai, lehen ez zegoen makinarik. Belarra ebakitzeko taillerretik irten, eta Oletara, Mekoletara eta alde guztietara joaten ginen. Orduan lana sobera zegoen, eta dirurik ez. Orain, oster, lanik ez, eta dirua sobera. Sasoi hartan aitzurra behar zenuen, eta dena eskuz egiten zen. Orain, makinagaz momentu batean egiten da dena.

**Baserrian bizi izan zara?**

Gu etxean bizi izan gara, herrigunean, baina beti izan ditugu behiak, astoa eta karroa. Eta anaia guztiok lantegian jarduten genuen. Sasoi hartan etxe guztietan ganadua izaten genuen.

**Sasoiko egoteko arbi-garek eraginik izango zuten.**

Gure gurasoak baino hogeitau urte gehiago bizi gara orain. Pentsua daukagu eta! Farmaziara joan, eta erosi egin daiteke. Garajea ere badugu, medikuarrena. Bertan ikusi nuen lehen goan lagun bat, eta gaixorik nagoen galdetu zidan. Gaixorik nagoen ikustera joan nintzela esan nion.

**36ko gerra go-goan izango duzu. Otxandioko bonbardaketari buruz, zer oroitzapen duzu?**

Milizianoak izaten genituen etxe bakoitzean lo egiten. 7 urte egiteko nituen nik. Zarata entzun genuen behin, ohetik altxatu, eta korrika irten ginen babeslekura. “Juliana, zuen umea biluzik doa!”, esan zioten amari. Ez zegoen jantzeko astirik ere.

**Senitartekorik galdu zenuen bonbardaketan?**

Ama metro batzuen gatik ez zuten harrapatu bonbek. Gu aitagaz geunden. Jendeak pentsatu zuen paperak botatzen zebiltzala. Aitak bi nebok etxean hartu, eta koltxoia bota zigun gainera. Irten ginenean, Oletara goazela, berriro agertu ziren. Hirurok sasitzara bota ginen. Ez genekien ama bizirik zegoen ere.



### LAUHORTZA

**ANDONI BARREÑA**

Irakaslea



**Kolonbia: FARC taldea eta CRIC mugimendu indigena**

Arras konplexua da Kolonbian gertatzen ari dena zutabe honetan azaltzea. Ez da hori nire asmoa, inondik ere. Baina bai hemengo prentsak azaltzen ez duen alderdia hona ekartzea, bizi izatea egokitu zaidana.

Hiruzpalau urte daroaguz Caucaoko nasekin hizkuntza-biziberritze kontuetan esperientzia eta prestakuntza trukatu. Sendoa eta entzutetsua da nasa indigenen erakundea, CRIC deritzana ([www.cric-colombia.org/](http://www.cric-colombia.org/)). Berrogeitaka urteko borroka latza eta hainbat lorpen milaka indigena hilik utzita bidean: lurren berreskurapena, Zaintza Indigenaren eratzea, Zuzenbide Indigena...

Gogor dihardute indigenek lortutakoari eusten eta dagokiena eskatzen. Baina Kolonbiako armada, paramilitarrak, narkotrafikoak eta gainerako talde armatuak sarri sartzen dira lurraldera, mehatxatzen eta hiltzen. 80ko hamarkadatik FARC taldeagaz ere bizi dute gatazka, bereziki talde horrek amapola, koka eta marihuana Lurralde Indigenan haztea erabaki zuenetik. CRIC taldeak ez du horrelakorik nahi bere Lurraldean, zenbait herritarren desintegrazioa dakarrelako, edozein talde armatuk aitzakia duelako bertara sartzeko...

Zaintza Indigena arma barik ari da Lurraldean zaintzen, eta sarri ditu borroka talde armatuekin. Borroka gorriak izan dituzte armadaren aurka, baina ni FARCEkoekin duten konpenezinak ikaratu nau. FARCEk hainbat indigena hil ditu azkeneko urteetan; kontu jakina Kolonbia osoan. Azkenekoa azaroaren 5ean Toribioko Babegunean gertatutakoa da: bertako Zaintza Indigenako koordinatzailea eta beste kide bat hil zituzten, gu formakuntza batean ari ginen tokitik oso hur. Formakuntza ari ziren guztiek ezagutzen zituzten hildakoak. Ikaragarria eta ulertezina nire ustez. Nola hil daitezke arma bako indigenak!



**Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura**

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194